

HIZKUNTZA Euskararen normalizazio prozesuan izan da garaipenik, «baina» askorekin, ordea > **12**

E.LKARRIZKETA, OLATZ ZUGASTI: «Nire lan pertsonalena da, eta baita ausartena ere» > **22**

2015eko abenduaren 12a | IX. urtea • 446. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik

www.gaur8.info

ITSASOAK LURRIK
GABE UTZITAKO
GIZAKIAK > 4

Munir UZ ZAMAN | AFP





Itsasoaren mailak gora egin izanak lurrik gabe utzi dituen gizakien drama 04

Ikusmira: Merkel, deabrua ala aingerua? 07

Japoniarrak Antartikara, zientziaren izenean baleak akabatzer 08

Euskarak izan du garaipenik, «baina» askorekin, ordea 12


Kontsumo patxadatsua eta neurtua, burua ez galtzeko 18

E.lkarrizketa: Olatz Zugasti 22

Nola eutsi landa eremuetako transmisioaren hariari? 26

In Fraganti: Iker Maidagan 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 Isidro Esnaola: Afrikarekin harremanak sendotzen ari da Txina

10 Unai Fernandez de Betoño: Biohirigintza

11 Mikel Zubimendi: Dagoena dago eta aurre egin behar zaio

16 Amaia Ballesteros

20 Gorka Zozia: Argiarekin jolasean

21 Garazi Goia: Ez da leku bat. Ezlekuak

25 Xabier Mikel Errekondo: Piratak altxorraren bila

25 Maider Iantzi: Edertasuna oroitzea

30 Iratxe Esnaola: Youtuberrak



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Afrikarekin harremanak sendotzen ari da Txina

Txinako Gobernuak bere lehentasun politikoak nahiko argi ditu eta pausoz pauso jarraitzen du marraztutako ibilbidea. Pasa den astean Hegoafrikako Johannesburgo hirian Txina Afrika Kooperazio Foroaren (FOCAC) bigarren gailurra ospatu zen. Lehenengoa 2006. urtean izan zen Pekinen eta Foroa bera 2000. urtean sortu zen. Presarik gabe, urratsez urrats. Hegoafrikako bilerak izan duen arrakastaren neurria parte hartzeak berak ematen du: 48 estatu edo gobernuburu bertaratu ziren, Afrikako Batasunaren gailurretara hurbiltzen direnak baino gehiago. Taiwanekin harreman diplomatikoak dituzten hiru estatuek ez zuten gonbidapenik jaso.

Datu ekonomikoak esanguratsuak dira oso eta bi aldeetako harremanen neurria ematen dute. Txina Afrikako lehen bazkide komertziala da 2009. urteaz geroztik. AEBak ordezkatu zituen Txinak lehen postu horretan. Merkataritzako fluxuak, bi norabideak kontuan harturik, 220.000 milioi dolarrekoak dira. Afrikak, batez ere, lehengaiak saltzen dizkio Txinari eta manufakturatutako produktuak erosi. Inbertsioei dagokionez, Txinako 3.100 enpresa baino gehiagok dituzte instalazioak kontinentean, orotara 101.000 milioi dolarreko inbertsioak dituztelarik. Egia da aurten Txinako inbertsioak eta erosketak asko jaitsi direla. Jaitziera horren haritik, Zhong Jianhua Afrikako Gaietarako Txinako ordezkariak nabarmendu du lehen galdetzen ziotela zergatik erosten zituen Txinak hainbeste lehengai, eta, orain, berriz, galdetzen diotela zergatik erosten duten hain gutxi prezioak merkatu direnean. Paradoxa horrek munduko testuinguru aldatokorra azalarazten du, baina garbi uzten du ere Txinak bere planen arabera aritzea lehenesten duela betiere.

Gutxiago erosten du orain Txinak, baina ez da esku hutsik joan Hegoafrikako gailurrera. Xi Jinping Txinako presidentea herrialdeak industrializazio prozesuan duen eskarmentua saretzeko prest agertu da. Finantza, teknologia eta talentua partekatzea izan da Txinako presidentearen eskaintza. Bi aldeei irabaziak ekarriko dizkieten kooperazio egitasmoak bultzatzeko prest agertu dira txinako buruzagiak, printzipioak eta etekinak orekatuz eta etorkizun komuneke komunitatea osatuz. Zentzu ho-

rretan, langileen formakuntza eta azpiegituren eraikuntza lehenestea proposatu du Txinako presidenteak, herri-tarrek ere elkarlanaren onura ikus dezaten. Hitzak diruz hornitu ditu gainera Xi Jinpingek: 60.000 milioi dolarreko diru funtsa sortuko duela iragarri du. Horietatik 5.000 milioi interesik gabeko maileguetara bideratuko dira eta 35.000 milioi finantzaketarako lerro berezietara. Gainontzeko baliabideak Afrikako hainbat estatutan proiektu txikiagoak finantzatzera bideratuko dira.

Dena den, gailur honetan aldaketa esanguratsu bat eman da. Orain arte, Txinaren eta Afrikaren arteko harremanak, batez ere, merkataritzan, ekonomian eta kulturen zentratu dira. Hegoafrikako bileran segurtasun kontuak ere sartu dira agendan. Alde batetik, Txinak baieztatu du hamar urteko akordio batera iritsi dela Djibutin erabilera militarra izango duen base logistiko bat jartzeko. Horrek hainbat misiotan parte hartzea erraztuko dio. Adibidez,

Orain arte, Txinaren eta Afrikaren arteko harremanak, batez ere, merkataritzan, ekonomian eta kulturen zentratu dira. Hegoafrikako bileran segurtasun kontuak ere sartu dira agendan

urtarrilean Hego Sudanen Nazio Batuen agindupean baitailoi bat zabaldu zuen Txinak. Horrez gain, 60 milioi dolar bideratuko ditu 25.000 soldadurekin osatutako Afrikako nazioarteko indar militarra finantzatzeko, kontinente barruko krisi egoeretan esku hartzeko. Txinaren posizioa ez da aldatu: Afrika Afrikako herritarrena da eta beraiek konpondu behar dituzte beraien arteko arazoak. Hala ere, argi dago milaka txinatarrek egiten dutela lan kontinentean eta Txinako Gobernuak kezkatuta dagoela beraien segurtasunarekin. Are gehiago, Malin izandako azken erasoaren ondoren.

Gailurrean, Afrikako liderrek goraiatu egin zuten Txinak Afrikako garapenean betetzen duen papera. Bi aldeetako arazoak egongo dira, baina Afrikako estatuei asko interesatzen zaie Mendebaldeko bazkideei kontrapisu egingo dien Ekialdeko bazkide indartsua izatea. •

KLIMA ALDAKETA

Itsasoaren mailak gora egin izanak lurrik gabe utzi dituen gizakien drama

 **JENDARTEA** / joseangel.oria@gaur8.info

Parisen egin berri den klimari buruzko goi bileraren aurretik adituek nabarmendu bezala, itsasoaren mailak gora egiten jarraitzen du eta milioika lagunak euren etxeak utzi beharko dituzte hurrengo hamarkadetan. Bangladesh bezalako herrialde lauetan egoera oso larria da, batez beste 12 metroko altuera izanik oso zaila baita itsasoari aurre egitea.

Bangladeshko Kutubdia uhartean bizi da Hamida Begum. Dagoeneko ez ditu zenbatzen bere etxea utzi behar izan dituen aldiak, baina berak bertan jarraitzen du, oraingoz behintzat, nahiz eta bizilagunek galdutzat eman zuten itsasoaren mailaren igoe-

raren aurkako borroka, eta, ondorioz, alde egin zuten. «Noiz-bait neure etxea ere urak eraman dezake eta beldur naiz. Montzoia hasten denean hemen bizitzerik ez da izaten», esplikatu du lau seme-alaba dituen emakumeak, adobeazko etxolaren aurrean. Bere etxebizitza da auzoan zutik irauten duen bakarra. «Baina gure lurra da eta ber-

Itsasoaren mailak gora egiten du beroketa globalaren eraginez eta, puntu askotan, olatuak gero eta arriskutsuagoak dira.
GAUR8

tatik alde egiteko dirurik ez daukagu», esplikatzen du.
Kutubdia uhartean 100.000 pertsona inguru bizi dira egun. Zientzialariek iragarri dute uharte osoa desager daitekeela datozen hamarkadetan, klima aldaketaren eraginez itsasoaren maila gora egiten ari baita. Jada milaka lagunak ihes egin dute uhartetik: gehienak Dhaka hiri-burura joan dira, bestela ere biztanle gehiegi dituen hirira. Kutubdiatik 80 kilometro eskasera den Cox's Bazaar hiriko etxola auzo batera joan dira beste asko.

OZEANOETAKO ESTATUAK
COP21 Parisen egin berri den klimari buruzko goi-bilera hasi aurretik adituek nabarmendu zuten, itsasoaren mailak gora egiten jarraitzen badu, uhartez osatutako hainbat estatu txiki desagertu egingo dira.
Baina arazoa larriagotu egiten da leku batzuetan, esaterako,



Bangladesheko dozenaka uhar-tetan eta itsasertzeko eremu batzuetan, munduko herrialderik lauenetakoa baita. «39 milioi pertsona bizi diren itsasertz luzea dugu», esan dio AFP agintziari Kamal Uddin Ahmed Ingurumeneko estatu idazkariak. «Populazio hori beste leku batzuetara eraman behar badugu, sekulako lana egin beharko da». Tankerako hausnarketak egiten dituzte arazo bera duten beste leku askotan ere.

Kutubdian bertan saiatu izan dira itsasoari eusten. Agintariek dikeak eraiki zituzten uholdeei eutsi nahian. Baita montzoia hasten denean izaten diren zikloiei aurre egin ahal izateko babeslekuak ere. Izan ere, montzoia iristen denean, Bengalako Golkoko eremu horretan bizitzetik ez da izaten, gerran dauden tokien itxura hartzen baitu.

Ganges eta Brahmaputra ibaien itsasoratze deltan kokatuta dago Bangladesh, eta urteroko montzoi eta zikloien menpean dago. Herrialdea laua da oso, batez besteko garaiera 12 metrokoa izanda, eta eremuaren %10 gutxi gorabehera itsas mailaren azpitik dago. Itsas maila metro bat igoko balitz, herrialdearen erdia ur azpian geratuko litzateke.

OLATUEN AURKA BORROKAN

Kutubdia uharteko herritarrek itsasoaren aurkako borroka galduta dute ordea. Azken 30 urteotan irlak bere azaleraren laurdena galdu du. Olatuei eusteko eraikitako hormigoizko blokeak erorita daude kasu gehienetan, eta beste batzuk hondarrak estalita geratu dira, urak uhartea inbaditzen duen heinean. «Olatuak itzultzen diren bakoitzean etxea utzi eta barrualdean bizi den norbaiten etxera joan behar dugu. Gero alokairua ordaindu behar dugu, jakina. Guretzat gogorra bezain garestia izaten da horrela ibili behar izatea».

Hamida Begumek gutxienez badu etxea. Uharteko beste herritar batzuk okerrago daude. Lutfun Nahar, esaterako, bere aitaren etxean bizi da, orain hiru hilabete ekaitz batek berea suntsitu zuenetik. «Euritea hasten



Mohammed Nasheed, Maldivetako Errepublikako presidentea ohia, 2012an herrialdean izandako estatu kolpearen ondoren gaur egun espetxean gaixo dutena.

GAUR8

KALTE EKONOMIKO GEHIEN JASATEN DUTENEN EKIMENA

Klima aldaketak sekulako kalte ekonomikoak eragiteko gaitasuna du, baina kalte horiek leku batzuetara besteetara baino lehenago iritsiko dira, edo iristen ari dira, eta kaltetuenak izan daitezkeen estatuek beraien interesak defendituko dituen taldea sortu zuten pasa den urrian Liman, V20 izenekoa. Afganistan, Bangladesh, Barbados, Bhutan, Costa Rica, Etiopia, Ghana, Kenya, Kiribati, Madagaskar, Maldibak, Nepal, Filipinak, Ruanda, Santa Luzia, Tanzania, Ekialdeko Timor, Tuvalu, Vanuatu eta Vietnam dira V20 taldeko kide. Beraien artean elkar laguntzea da ekimenaren helburuetako bat. Erregai fosiliek gabeko garapena bultzatzeko konpromisoa hartu dute, eta beroketa globalak eragindako arazoei elkarren artean egin nahi diete aurre.

Cesar Purisima Filipinetako Finantza ministroa da V20 taldearen lehen presidentea. Bangladesh eta Costa Ricako ministroen laguntza du presidentek.

V20 taldea sortzeko bileran esku hartu zuen Jim Yong Kim Munduko Bankuko presidentea ere. Erabateko sostengua eman zion koalizio berriari eta gogorarazi zuen klima aldaketak larriagotutako hondamendiek sekulako kalte ekonomikoak eragiten dizkietela garapen bidean dauden herrialdeei, aurtengo martxoan Vanuatu suntsitu zuen tifoia gogora ekarriz. Christiana Figueres Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioko idazkariak erantsi zuen klima aldaketari aurre egitea ez dela ingurumen erronka bat, ekonomikoa baizik, mundu osoko ekonomia aldatzea baita V20 taldeko herrialdeak salbatzeko egin behar dena.

zenerako babesleku bat aurkitu behar genuen, baina kasu honek urak oso-osorik eraman zuen etxea», kontatu du 43 urteko emakumeak.

Kutubdia uharteko 40.000 biztanle inguru Cox's Bazaar hirira joanda daude dagoeneko. Bertan metalezko txapekin egindako etxoletan bizi dira, zaborra nagusi den eremuetan. Uhartea utzita ere, askok arrantzan jarraitzen dute, horixe baita gehienek ogibidea. Arrainak lehortzen jartzen dituztenean, sekulako usaina izaten da. Beste asko ontzigintzan aritzen dira 120 kilometroko hondartza (munduko luzeena) duen hirian.


IHESLARIEN KEZKA

Nur Husain 2012an iritsi zen Cox's Bazaar hirira. Bertan kafe-tegi bat zabaldu zuen eta bezero gehienak Kutubdiatik etorritakoak dira. Une honetan bere kezka nagusia da egungo etxea ere aurki utzi beharra izango duela, inguruan hotel asko eraikitzen hasiak dira-eta. Turismoaren industriak bertako aireportua handitu nahi du, negozio

hobea egin ahal izateko, munduko hondartzarik luzeenaren aitzakiapean. «Itsasoko jendea gara. Egiten dugun guztia itsasoarekin lotuta dago. Nora joan ez daukagu», adierazi du Nur Husainek.

Itsasoak mehatxatuta dauzkan beste leku askotan tankerako kezkak dituzte: edozein momentutan etxea utzi beharra izango dutela. Beraien herrialdeek bat egin dute, klima aldaketaren aurkako borrokan bat eginez gero indar gehiago izango dutelakoan. Horrela sortu zuten V20 taldea, herrialde industrializatuenen G20 taldearen alternatiba moduan.

Orain sei urte Kopenhage Danimarkako hiriburuan egin zen klimaren goi bilera ez zen uhar-teetako estatu txikien gustuko izan, baina Parisen (lerrook idazteko momentuan, joan den ostegunean, ez dago jakiterik nola amaituko diren negoziatioak) badirudi giroa askoz hobea dela eta estatu askok bat egin dutela beroketa globalari 1,5 graduren azpitik eusteko helburuarekin. Aurreratu dela dirudi.



Doha Qatarreko hiriburuan 2012an egin zen COP18 goi-bileran 2 graduko muga hori ezarri zen, Lurra hortik gora berotuz gero, ondorioak ikaragarriak izango liratekeelakoan. Baina bi graduko marka ere oso kaltegarria da ozeanoetako estatu txiki horientzat, eta horregatik eskatzen dute anbizio handiagoko muga bat ezartzeko: 1,5 gradu.

KOPENHAGEKO IZAR BAKARRA

Parisen negoziatzen aritu diren agintarien artean hutsune handi bat dago, Mohammed Nasheed Maldivetako Errepublikako presidente ohiak utzi duena. Bera izan zen Kopenhageko goi bilerako izar nagusia, «ia-ia izar bakarra», “The Guardian” Londresko egunkariak idatzi duenez. Une honetan bere herrialdean daukate preso.

Nasheed Danimarkako hitzordura iritsi zen lehen estatuburua izan zen 2009an. Aireportutik zuzenean areto handi batera joan zen, bertan zeuden milaka lagunuen aurrean hitz egiteko: «Nire mezua da protestekin jarraitzeko. Kopenhage bukatu ondoren ere, segi. Lanean jarrai-

tu behar da, baldintzak egokie-nak ez badira ere. Jarraituz gero, elkarrekin iritsiko gara zenbaki erabakigarri horretara: hiru, bost, zero». Horrela adierazi zuen ekologistek helburu moduan ezarritako karbono dioxidoaren 350 ppm-ko (milioiko parteak) kontzentrazioa.

Giroa erabat berotu zuen Maldivetako gizon txikiak. Hitzaldia bukatutzat eman zuenean, he-dabideen kamera eta mikrofonoek inguratu zuten, baina entzuleek berarekin jarraitu nahi zuten, ez zuten nahi Nasheedek bertatik alde egitea.

Ez da harritzekoa. Beste inork baino hobeto adierazi zituen itsasoak mehatxatutako herrialdeen egoera eta sufrimendua. Bere Gobernuako kide guztiek urpekaritza-ikastaroak egin behar izan zituzten, hilzorian zegoen koralezko uharri batean, uraren azpian, Exekutiboaren bilera bat egin ahal izateko. Baldintza horietan egindako bileran erabaki zuten Nazio Batuei 350 ppm-ko atmosferara itzultzeko exijitzea.

Presidentearen etxeko teilatura igo zen beste batean Mohammed Nasheed mailua hartuta,

eguzki plakak jartzeko. Orduan agindu zuen Maldivak izango direla karbono dioxidorik isurtzen ez duen lehen herrialdea.

Nasheeden mezua bazter guztietara iritsi zen. Maldivetako artxipelagoan altuera handiko punturik ez dagoenez, guztiek dakite itsasoak gora egitean desagertu egingo dela, uraren azpian geratuko direla uharteak, eta horrek sekulako sinesgarritasuna eman zion orain preso daukaten politikariari.

Bestalde, “The Guardian” britainiar egunkariak nabarmendu du Maldivetako diktaduraren aurkako borrokak ere sinesga-

Bangladeshko Kutubdia uhartean bizi da Hamida Begum. Askotan bere etxea utzi behar izaten du olatuen eraginez, baina bera itzuli egiten da, oraingoz.
Munir UZ ZAMAN | AFP

Azken 30 urteotan Kutubdia uharteak bere azaleraren %25 galdu du. Olatuei eusteko eraikitako blokeak erorita daude eta beste batzuk hondarrak erabat estalita geratu dira

Kutubdia uharteko 40.000 biztanle inguru Cox’s Bazaar hirira joanda daude dagoeneko. Bertan metalezko txapekin egindako etxoletan bizi dira, zaborra nagusi den eremuetan

rritasuna ematen diola Nasheedi. “Indiako Ozeanoko Mandela” ere deitu zioten, artxipelagoko diktaduraren aurkako borroka-rengatik. Bost urte eduki zuten orduan espetxean, borrokak garai-ko agintariak hauteskundeak egitera behartu zituen arte. Eta irabazi egin zituen hauteskundeak, Hegoafrikako buruzagi historikoak bezala. Turista askorentzat munduko lekurik ederrena dena, demokrazia bihurtu zen.

KARTZELAN ETA GAIKO

Diktadore zaharraren aldekoek Nasheeden aurkako mugimenduekin jarraitu zuten ordea, eta, azkenean, 2012ko otsailean, kargutik kendu zuten, estatu kolpe baten bitartez.

Une honetan kartzelan daukate Mohammed Nasheed, gaixo, eta, azken berrien arabera, bere sasoiak behera egin du. Gainera, gaixotasunak eskatzen dituen tratamenduak ez dizkiote ematen. Amal Clooney abokatuak dio agintari berriak «harroputzak» direla, eta oso zaila dela horiek bere bezeroaren eskubi-deak errespetatzea.



IKUSMIRA

MERKEL, DEABRUA ALA AINGERUA?

2015eko urteko pertsonaia izendatu du "Times" aldizkariak Angela Merkel Alemaniako kantzilerra. Nancy Gibbs AEBetan argitaratzen den aldizkariaren edizio arduradunak Europak izan dituen erronkei aurre egiteko Merkelek erakutsi omen duen «ausardia» goraiatu du. Ausardia, ordea, ez da berez ona ala txarra, ezta politikan ere. Gibbs berak Greziako zorraren auzian zein Ukrainiako krisian Errusiarekin Merkelek izandako jarrera «ir-moa» aldarrikatu du batetik, baina, bestetik, errefuxiatuen auzian azaldu duen gizatasuna ere nabarmendu du. Merkelen zein aurpegirekin gertatzen gara, beraz? Zerrendan Al-Bagdadi Estatu Islamikoaren kalifaren eta Donald Trump AEBetako

magnate eta politikariaren aurretik geratu denarekin bai, noski. Zeresanik ez Merkel 1938an "Times" berak urteko pertsonaia izendatutako beste "alemaniar" batekin alderatzen badugu: Adolf Hitler genozida. Bere aurretik izendapena jaso duten hiru emakumeak Windsorko dukesa, Ingalaterrako Elizabeth II.a eta "Cory" Aquino politikari filipinarra direla kontuan hartuta, ordea, ez dirudi arazoa Merkelengan dagoenik, "Times" aldizkariarengan baizik. Dabid LAZKANOITURBURU

OZEANOAK

Japoniako itsasontziak Antartikara doaz, zientziaren izenean baleak akabatzera

 **JENDARTEA** / joseangel.oria@gaur8.info

Nazioarteko auzitegiei jaramonik egin gabe, eta hainbat elkarte eta estaturen iritziaren aurka, Japoniak bere ontziak bidali ditu Antartikara baleak akabatzera, hori bai, zientziaren izenean. Itsasoan Sea Shepherd elkartekoen ontziekin egingo dute topo, bai behintzat AEBetan egoitza duten ekologistak japoniarrak aurkitzeko gai izanez gero.

Hilaren 1ean abiatu ziren japoniar baleontziak herrialdeko mendebaldean dagoen Shimonoseki hiriko portutik. Urtebete egin dute baleak ehizatu gabe Nazioarteko Justizia Auzitegiaren erabaki baten eraginez. Oraingoan, baina, Japoniako agintariek ez diete inolako kasurik egin ez Australiak ez AEBek egin dizkieten kritikei, aliatuak diren arren.

Tokiok dio 2016an, orain hasten den denboraldia bukatuurretik, 300 bat bale inguru ehizatuko dituela Antartikan. Urtero kopuru bera harrapatze-

ko asmoa dute: horrenbestez, 4.000 bale inguru hilko dituzte hurrengo hamabi urteetan, aurkariak egitasmo osoa hankaz gora botatzea lortu ezean.

Nazioarteko Justizia Auzitegiak 2014an ebatzi zuen Japoniak egiten duen baleen ehiza ez dela helburu zientifikoekin egiten, eta horretarako baimenak bertan behera uzteko agindu zuen. Aurtengo apirilean Baleen Nazioarteko Batzordeak adierazi zuen Japoniak oraindik arrazoi-tu egin behar duela baleak ehizatze beharra.

Japoniak 2015-16 denboraldirako aurretik eginga zuen egitasmoa murriztu egin du, auzitegiak agindutako norabidean.

info+


- **Sea Shepherd AEBetan egoitza duen elkartearen webgunea, ingelesez:**
www.seashepherd.org
- **Elvira Jimenez Greenpeace taldeko kidearen bloga, gaztelaniaz:**
www.greenpeace.org/espainia/Blog/Autores/Elvira-Jimenez/

Beraz, *balaenoptera bonaerensis* generoko 333 bale harrapatuko dituela dio, hau da, hasierako egitasmoak zioena baino %66 gutxiago. «Iaz, tamalez, Nazioarteko Justizia Auzitegiaren erabaki baten eraginez baleak ehizatu ezinik geratu ginen», adierazi zuen portuan Tomoaki Nakao Shimonoseki hiriko alkateak. Bertan egoten da baleontzien flota. «Ez dago gaur baino egun hoberik», esan zien Nakaok itsasontzietako tripulatzailerei.

Nazioarteko Justizia Auzitegiak oso argi adierazi zuen bere erabakia 2014an: Japoniak Antartikan egiten duen baleen ehiza ez da legezkoa, eta, horren atzean, arrazoi zientifikoak egon beharrean (Tokiok esan moduan), komertzialak daude. Auzitegiaren arabera, ehiza mota hori egiteko abian jarritako programa ez zen behar adinako «gardentasunarekin» egin. Hori dela eta, programari lotuta Tokiok eman dituen baimenak «berehala» baliogabetzeko agindu zion Japoniako Gobernuari.

«Erabakia ez dugu egoki ikusten, baina ezinbestean bete be-





EKINTZA ZUZENAK ERAGIN ZUEN ZATIKETA

Sea Shepherd Conservation Society izeneko gobernuz kanpoko erakundea Paul Watson Greenpeace taldeko kide ohiak sortu zuen 1977an, baleontziei aurre egiteko eraren inguruko eztabaida baten eraginez: Greenpeacek baztertu egin zuen ekintza zuzenaren aukera eta Watsonek ezinbestekotzat jotzen zuen. Sea Shepherd elkartekoek diote 1979az geroztik hamar baleontzi (beraiek «ontzi piratak» deitzen diete, legez kontra aritzen direlako) hondoratu dituztela Portugalen, Galizian, Hegoafrikan, Islandian eta Norvegian. 2010ean, berriz, Japoniako baleontzi batek «Ady Gil» izeneko trimaran futurista hondoratu zien ekologistei. Tokiok bestelako bertsio bat du. Sea Shepherd elkarteko kideei leporatzen zaie azken urteotan Japoniak nahi baino bale gutxiago akabatu izana: 251 bale 2013-14 denboraldian, eta 103 besterik ez 2014-15 denboraldian. Sea Shepherd-ekoek ekintzak askotan salatu izan dira tripulaztaileak arriskuan ipintzeagatik. Gainera, Baleen Nazioarteko Batzordeak gaitzetsi egin zituen bere ekimenak, «terroristak» direlakoan.

har dugu, loteslea delako. Hori bai, epaia aztertu eta neurriten bat abian jar dezakegun aztertuko dugu», esan zuen orduan Nori Shikati Japoniako Gobernuak eledunak.

1986tik debekatua dago helburu komertzialekin baleak ehizatzea. Japoniak, berez, orduan utzi zuen baleen ehiza. Baina Shikatik iaz agindu moduan, orduan ere «neurriten» bat topatu zuten bereari eusteko.

AUSTRALIAREN JARRERA

1987an Japonia berriro hasi zen baleak akabatzen, hori bai, helburu zientifikoekin egiten zuela argudiatuta. Horretarako programa bat jarri zuen martxan. Orduan ere animalien eta naturaren aldeko talde ugari kontra agertu ziren, baita zenbait estatu ere. Australia zen horietako bat. 2010ean Canberrako Gobernuak beste urrats bat egin zuen, eta epaitegietara jo zuen. Japoniaren programak Baleen Ehiza Arautzeko Hitzarmena urratzen duela salatu zuen, eta ez dela batere zehatza. «Duen helburu bakarria komertziala da», esan

Ezkerreko orrialdean, baleontzien irteera Japoniako portu batetik (ezkerrean) eta baleak ehizatzearen aurkako protesta Australian (eskuinean). Goiko irudian, bale bat Japoniako ontzi batean. AFP

zuen epaiketari Canberrako ordezkariak. Japoniako Gobernuak, jakina, defendatu egin zuen bere programa. Bere jardueraren helburu bakarra omen zen (eta omen da gaur egun ere) Antartikako ekosistema eta baleen populazioa kontrolatzea: baleak ehizatzea beharrezkoa da beren adinaren berri izan eta horren arabera espeziea arriskuan ipini gabe zenbat harrapatu erabaki ahal izateko. Gainera, Japoniak dio bale espezie gehienek desagertzeko arriskurik ez dutela eta balearen haragia jateko ohitura bere kulturaren parte dela. «Erabat onartezina da Ja-

poniako Gobernuak Nazioarteko Justizia Auzitegiaren erabakiei jaramonik ez egitea», adierazi zuen Junichi Sato Japoniako Greenpeace taldeko eledunak.

Baleak ehizatzeako programa «ezinbestekoa» dela esan zuen, bere aldetik, Hiroshi Moriyama Japoniako Nekazaritza, Arrantza eta Baso Politikako ministroak.


BORROKA ITSASOAN?

Sea Shepherd AEBetan egoitza duen elkarte ekologistak berehala iragarri zuen baleontzien jarduera oztopatzeako borondatea. Jeff Hansen zuzendariak jakinarazi zuen Australian, Melbourne hiriko portuan, duten «Steve Irwin» ontzia berehala irtengo zela japoniarren bila, «legez kontrako jarduera guztiak saihesteko asmoarekin». Hori bai, horretarako ekologistek baleontziak topatuko beharko dituzte ozeanoan.

Moriyama ministroak berehala salatu zuen ekologisten ekimena, «erabat deitoragarria» dela esanez. Baleontzien segurtasuna bermatuko dutela erantsi zuen agintariak.

Nazioarteko Justizia Auzitegiak 2014an ebatzi zuen Japoniak egiten duen baleen ehiza ez dela helburu zientifikoekin egiten, eta, ondorioz, baimenak bertan behera uzteko agindu zuen

«Erabakia ez dugu egoki ikusten, baina ezinbestean bete behar dugu. Epaia aztertu eta neurriten bat abian jar dezakegun aztertuko dugu», esan zuen orduan Japoniako Gobernuak



Unai Fernandez de Betoño
Arkitektoa

Biohirigintza

Iragan abenduaren 3an, Euskararen Egunaren aitzakiarekin, bi hitzaldi antolatu genituen EHUREn Arkitektura Eskolan, «Ingurumena: eraikuntzatik hirigintzara» lelopean. Lehen hitzaldian bioeraikuntzaz aritu ziren Inhar Agirrezabal eta Garbiñe Pedroso arkitektoak; bigarrenean, lurralde mailako ingurumen gatazkei buruz jardun zuen Iñaki Petxarroman kazetari eta «Berria» egunkariko zuzendariordeak.

Hortaz, gaiari eskala ezberdinetatik ekin zioten hizlariak. Eta entzuleok ondorioztatu genuen bi tamaina horiek ez direla horren ezberdinak, nolabait, baizik eta osagarriak. Alegia, eraikuntzaren zein hirigintzaren eskaletan eragin behar dugula, gizakion habitata modu egokiagoan, orekatuagoan, eraikiko badugu.

Bioeraikuntza delakoak, alemanezko *baubiologie* terminotik datorrenak, osasunean jartzen du arreta. Eta ez soilik giza-kionean: «eraikuntzaren biologiak» ingurunearen osasuna ere kontuan hartu nahi du. Horretarako, osagai toxikorik gabeko eraikinak bakarrik egitea proposatzen du, substantzia toxikorik gabeko (edo ahalik eta gutxieneko) ingurune batean. Eskuarki lastozko etxeekin eta autoeraikuntzarekin lotu bada ere, Inharrek eta Garbiñek ederki erakutsi ziguten bioeraikuntza kalitatezko arkitektura profesionalarekin ere bateragarria dela. Areago, haien ustez, naturarekiko begirunez eraikitzea izango da arkitekto lanbidearen etorkizun posible bakarra.


Zoritzarrez, hori ez da oro har Euskal Herrian azken hamarkadotan jarraitzen ari garen bidea, Iñakik zenbait kopururekin argudiatu bezala. Gure herriak duen urbanizazio maila oso altua baita. «Lurra, zorua bailitzan» (Txalaparta, 2011) lanean berak idatzi bezala, 2020rako Euskal Herriko lurren artifizializazio maila % 20koa izatea espero da, Espainiako kopuruak laukoiztuz. Eta, azken urteotako krisialdi ekonomikoa dela-eta gure ingurunearen eraikuntza maila dezente moteldu den arren, porlan fabriketan ekoizitako hormigoi tonen jaitsierak argi utzi bezala, ez da proposatu sistemaren aldaketa funtsezkorik, kosmetika mediatikoaz harago. Ondorioz, barne produktu gordina edonola hazarazteko helburu obsesiboak jarraituko du gidatzen gure politika ekonomiko-urbanistikoa.

Sentsibilizazioaren alorrean dezente aurreratu dugula gehiago baliatu beharko genuke. Hondakinen gaian, esaterako, zenbaitetan erosokeria na-

gusitu arren, asko aurreratu dugu kontzientziazioari dagokionez. Poluzioari dagokionez ere, dagoeneko aski ongi ulertzen dugu CO₂ kopuruengatik hiriburu handietako autoen trafikoa mugatzea. Eta jada hasiak gara irudikatzen itsas mailaren igoerak kostaren fisionomia goitik behera eralda deza keela. Hots, klima aldaketa ez dela soilik «besteei» eragingo dien kanpoko zerbait.

Alabaina, krisiaren ostean gainera datorkigun oldea ez da txikia izango. Hiri marketinean aditu Beatriz Plaza ekonomialariak egunotan Euskadi Irratiko ekonomia tertulian esandakoa, adibidez, kezkatzekoa da: «Europar inbertsio publikoa geldirik dago, eta, hura berpizteko, azpiegiturak egiteari berrekin behar diogu». Lozorroan egon diren proiektu anitz (Pasaiaiko kanpo portua, Garoña, Gendulain...) laster berpiztu nahi izango dituzte zenbait indar politiko-ekonomikok. Horregatik, bioeraikuntzatik biohirigintzara eman beharko dugu jauzia, ingurune osasuntsuago bat eraikiko badugu. Eraikuntzaren eskalatik soilik ezin zaiolako aldaketa sistemiko bati aurre egin.

Inharrek eta Garbiñek aitortu bezala, etxe familiabakar batzuk bioeraikuntzaren arauak errespetatuz eraikitzea ez delako nahikoa. Akaso zenbaitetan kaltegarria ere izan daiteke, etxe eredu horrek lurzoru gehiegi okupatu ohi duelako, gehienetan auto pribatuan oinarritutako mugikortasun eredu desegokia bultzatuz, gainera. Beraz, horra erronka: bioeraikuntzatik biohirigintzara jauzi kuantitatibo eta kualitatiboa ematea. •



Ilustrazioa: UNAI FERNANDEZ DE BETOÑO

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Dagoena dago eta aurre egin behar zaio

Kolpez kolpe, kanpotik kolpe andana etorri dira hauteskunde kanpaina honetara. Argentinan, Macriren garaipenarekin, bat; Venezuelan, bolibartarren porrotarekin, muturrekoa; Frantzia, Le Penen markarekin, kolpe gogorra; Katalunian, ez atzera ez aurrera horrekin, nerbioak dantzan, ulermena zero-petik eta kezkak barra-barra. Mundua auzo dugula kontuan hartuz, ez dira, ez, nolana hikoak. Ezkerreko abertzaleontzat morala ahuldu eta animoak jota uzten dituzten berriak dira, kutsakorra den fenomeno. Tira, hori da dagoena, eta ez dagoen tokitik ateratzetik ez dagoenez, dagoenarekin egin behar da aurrera.

Horiek kanpotik datozenak, barrutik hartutako kolpeak ere ez direlako makalak. Saltsa bada, haserre logikoa. Eta ez da gutxiagorako, iragan astean herri honetan sekula ikusi gabea ikusi baikenuen; hots, ustez amnistiaren aldeko mugimendu bat dena dozena erdi minkide, sei euskal preso «gezurtiak», «komunikabide sarraskijaleen bazka emaileak» direla esaten ikusi genuen, Pariskoa «lotsaren epaiketa» zela esaten, eta horrek hautsak harrotu ditu.

Sinestea kosta egiten zait, ezagutzen ditudalako hor dabilzan batzuk, eta estimatzen dut bakanen bat edo beste ere, baina ki-deak publikoki hala tratatzea, amnistiaren izenean... Seguru nago haiek ere eskandalizatu dituela. Aitor-tuko dute ala ez, baina, intimitatean, seguru baietz.

Arduragabekeriaren monumentua den prentsa ohar penagarriak baino askoz gehiago kezkatzen nau, hori bai, horren atzean igartzen den kulturak. Amnistiarena aparkatu eta orain abstentzioa hartu dute palanka. Zilegi da abstentzioa defendatzea, nola ez, baina onargarria ez dena abstentzioa defendatzeko «lapurtzen duena lapurra den bezala» hauteskundeotan EH Bildu bozkatuko dutenak «españolito» deitzea da; are larriago «vota sí, vota no, vota blanco... votas a Franco» eta halako leloekin ibiltzea. EH Bilduko boto-emaileak, gure jendea, espainol, frankista eta tonu horretako

akusazio larriekin anonimotasunetik salatzeak ez du izenik. Eta hola dabilzanak erretratatzeko dituzte.

Pariseko seiak «gezurti», EH Bildu botatuko dugu-nok «españolito», Arnaldo Otegi «likidazionista», Rafa Larreina «homofobo atzerakoi»...

Zer da hori guztia? Zer bilatzen da jarrera horiekin? Lagunak egitea? Amnistiaren alde indarrak biltzea? Ez al da inor aterako txikimundu horretan arrazona-mendu sendo bat eskaini eta maila emango duenik? Izan ere, hori bada, hitz horiek adierazten dutena, dagoen maila, sentzilloki, mailarik ez dago. Oker dabil-tza, oso.

Ekuazioa erraztu egin beharko lukete. Eta dibortzio zibilizatu batera jo. Presoak zatiketa politiko baterako erabiltzeke, amnistiaren edo abstentzioaren jantziekin tximinoa janzteke, biluztu egin beharko lirakeke. Aurpegia eman, siglak hartu (eta ez herriaren ondare

Daudela lasai, bakea emanez, arrastoan segituko baitugu. Gustura asko eta konbentzimendu osoz bozkatuko ditugu gureak. Katea eten ez dadin, independentzia ardatz, erruberari eraginez. Beti-beti eta beteki

diren Amnistiaren Aldeko Batzordeen edo KAS blokearen iruditeria eta tipografia patrimonializatu), proposamen politiko bat taxutu, borobildu buruan eta gogoan duten operazioa eta atera daitezela politikaren plaza publikora, kontraesanen lokatzetara, denok bezala jokatzera.

Eta daudela lasai, bakea emanez, kanpoko kolpeak eta barrukoak kiroltasunez enkajatzuz eta kostuak onartuz arrastoan segituko baitugu. Gustura asko eta konbentzimendu osoz bozkatuko ditugu gureak. Katea eten ez dadin, independentzia ardatz, erruberari eraginez. Beti-beti eta beteki. •

EUSKARAREN GARAIPEN TXIKIAK

Euskararen normalizazio prozesuan izan da garaipenik, «baina» askorekin, ordea

Tarteka, jasotzen dugu euskaldunok gu-re hizkuntza eskubideei buruzko berri onik; tarteka, izaten da euskararen

aldeko epai edo sententziarik; tarteka, abiatzen dugu etorkizunean euskaraz bizi ahal izateko bidean tranpolin papera jokatu duen ekimenik. Zoritarrez, tartekako kontuak izaten dira hauek euskaldunon ingurumarian. Jatorrian oso asmo ezberdina izan dezakete, gainera; batzuek euskaldunon hizkuntza eskubideak errespetatuak direla adierazi nahi dute; besteek, berriz, euskaldunon hizkuntza eskubideak errespetatzea dute aldarri. Izan badira, ordea, eta lagin txiki bat jaso nahi du begi aurrean duzun erreportajeak.

Bildu ditugun adibide batzuek berebiziko garrantzia (izan) dute euskararen normalizazio prozesuan; beste hainbat, berriz, testuinguru jakin batean emandako aurrerapausoak dira, nolabaiteko jarraipena izan dutenak (ala ez). Kontuan hartzeko eremuak, gainera, dozenaka izan daitezke, ondorioz, eta adierazi nahi dena ulergarriagoa suertatadin, hirutan banatu ditugu: hezkuntza, arlo sozioekonomikoa eta administrazioa.

Alorrez alor gertatu diren garaipen txikien alea biluzten hasi aurretik, hizkuntza baten berreskurapen prozesuak biltzen dituen hainbat gako jarriko ditugu mahai gainean. Aipatu, halaber, artikularen oinarrian GAUR8k Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusiarekin eginiko elkarrizketa bat dagoela, hots, bereak izango dira hurrengo lerroetan bilduko ditugun adierazpenak.

Berak esandakoaren arabera, hizkuntza bat berreskuratu nahi bada bi jardun garatu behar dira bereziki: pertsonak euskalduntzea eta espazioak euskalduntzea, «pertsonak euskalduntzea ez baita nahikoa, hauek espazioak behar dituzte-eta euskaraz bizitzeko». Pertsonak euskalduntzeko hiru iturri nagusi ditugu: familia transmisioa, hezkuntza eta helduen euskalduntzea. Beraz, badaukagu non kokatu azter-

 **HIZKUNTZA /** Aimar Etxeberria Korta

Aktak euskaraz bidal daitezkeela ebatzi du EAEko Auzitegi Nagusiak. Ezbairik gabe, aurrerapauso moduan har dezakegu sententzia euskararen normalizazio prozesuaz ari garenean. Hala, historia hurbilean izan da «garaipen txiki» gehiagorik, eremu eta eragin ezberdinekoak, baina guztiak du bere «baina» altzoan.

tuko dugun lehenengo eremua, hezkuntzarena.

IKASTOLAK ETA D EREDUA

“Garaipenak” xehatzen hasi aurretik, komeni da *garaipen* hitzari jarritako kakotxak azaltzea. Aurrerapausoak aipatzea da artikularen xedea, oso kontziente izanik guztiek dutela beren “baina”. Hala, ikastolen sorrera mugimendua koka dezakegu historia hurbileko euskararen lehen garaipen moduan. Hauen sorreraren testuinguruari so, aitortu behar da oso sorrera ezberdinak


izan zirela euskal lurralde bate-tik bestera, baita lurralde bakoitzean herriz herri ere.

Frankismoaren garaia zen Euskal Herrian. Honek, askatasun guztiak mugatzeaz gain, euskaltzaletasunarekin zerikusia zuen oro zanpatzeari ekin zion. Gaztelania ezarri zuen Estatuko hizkuntza nagusi bakar modura eta, ondorioz, euskara ikasgeletatik atera zuen. Estatu frantsesari dagokionez, bertan ere ez zuen euskarak inolako aitortza edo izaera ofizialik; Frantziako Iraultzaren garaietatik zetorren fran-

tses nortasuna aldarrikatzen jarraitzen zuen oraino iragan mende erdialdean.

Hala, guraso, irakasle eta hainbat herritarren bultzadaren ondorio izan zen iragan mendeko 60ko hamarkadan gaur egun ikastola gisa ulertzen dugun fenomeno. Hauek, euskarak bizi zuen jazarpenari erantzunez, haurrei euskaraz irakasteari ekin zioten, baita pedagogikoki bestelako heziketa bat emateari ere. Aurrez esan bezala, ezberdina izan zen lurraldez lurralde ikastolen sorrera: Gipuzkoan, 1961ean sortu zen Donostian Santo Tomas Lizetxea; Bizkaiko –eta Euskal Herriko– lehenengo ikastola, aldiz, 1957an sortu zen Bilbon, San Nikolaseko katekesirako lokale-tan; Nafarroan, halaber, 1963. urteko udan egin ziren ikastola sortzeko lehen ahaleginak, harik eta 1965ean Iruñeko Euskal Herriaren Adiskideak Elkarteak sortu zen arte; Gasteizen 1963an zabaldu zituen ateak Olabidek; eta Ipar Euskal Herrian ez zen 1969. urtera arte jarri martxan lehenengo ikastola:

Mari Karmen Goñi, Baztan Ikastolako lehen andereñoa, ikastolaren historia idazten hasi zen 27 ikasletako hainbatekin.
«AMETSA EGIA»



Baionan izan zen, Argitxu Nobliaren etxean.

Jazoera historiko hauen harira dio Bilbaok ikastolek hizkuntza-ren normalizazioari egin dioten ekarpena «baloraezina» dela. «Azpimarratzekoa da zer egoeratan sortu ziren; askotan ez zekiten beraien seme-alabek titulu ofizialik izango ote zuten ere», aldarrikatu du.

Bestalde, hezkuntza publikoaren eremua izango genuke, aurrekoak baino «baina» gehiago biltzen dituen bere baitan. Hegoaldeari erreparatuta, frankismoaren osteko garaietara jo behar dugu euskara hezkuntza publikoan aurkitu ahal izateko. 1979ko Euskal Autonomia Erki-degoko Estatutuari esker, euskara hizkuntza ofizial bilakatu zen erkidegoan, bere eskubide eta betebeharrak guztiekin. Betebeharraren artean kokatzen da ofiziala den hizkuntza oro ikastetxeetan irakatsi behar izatea, eta derrigorezko hezkuntza amaitu ostean ikasle orok lurralde jakin horretako hizkuntza ofizial guztiak jakin behar ditu. «Hori da teoria, nahiz eta ez den betetzen», dio Kontseiluko idazkari nagusiak.

Ereduen sistema da Bilbaok jopuntuan jartzen duen afera. Berak dioenez, aipatu sistemaren alde egin zen garaian bi aukera zeuden: «Konjuntzio sistema edo ereduen sistema. Kataluniak lehenaren alde egin zuen, hots, erabaki zuen katalana izango zela bertako transmisio eta komunikazio hizkuntza, eta gaztelania ikasgai bat izango zela. Hemen, aldiz, ereduen sistemaren alde egin zuten». Orain ia 30 urte hartu zen erabaki hartatik bi ondorio positibo ateratzen ditu Bilbaok: «Batetik, eskola publikoetan euskara irakas hizkuntza bezala sartu zela eta, bestetik, gero eta guraso gehiago direla euren seme-alabak D ereduaren matrikulatzen dituztenak».

«Baina» handi bat ere badu honek guztiak atzean, ordea. Garaian garaiko hausnarketak egin behar direla dio Bilbaok, eta ondorioz, orain 30 urte izan zitekeen arazorik ez dela 2015 honetan: adibidez, euskaraz irakats dezaketen irakasleak faltarik ez da egun. Baina ereduen sistemak



Antzuolako Elay enpresako kideak, euskalduntze plana osatu dutela ospatzen. GAUR8

JON PELI URIGUEN

ELAY TALDEKO LEAN KOORDINATZAILEA

«Asko eman digu euskara plana amaieraraino eramateko egin dugun ibilbideak»

Elay taldeko Lean koordinatzailea izateaz gain, euskara arloari dagokionez «Euskaragileak» taldean enpresaren ordezkari ere bada Jon Peli Uriguen. Momentuz, enpresaren euskara plana amaieraraino eraman duen enpresa bakarra da Elay, eta horren inguruan galdetu diogu.

Hitz egin ezazu Elay enpresaren ezaugarriez.

Automozioaren esparruan lan egiten duen enpresa bat da Elay. Egun 210 langile ditugu Antzuolako plantan [euskaldundu duten plantan], baina Mexikon eta Txinan ere badauzkagu beste bi lantoki.

Noiz eta zergatik abiatu duzue enpresa euskaratzeko plana?

Enpresaren euskalduntze prozesuarekin 1987an hasi ginen, baina zezenari adarretatik 1991. urtean heldu genion. Administrazio Kontseiluaren ekinbidea izan zen, eta ondoren langileei proposamena aurkeztu eta asanbladan onartua izan zen.

Enpresa eremu oso euskaldun batean kokatuta egoteaz gain, zuzendaritzak berak ere konpromiso handia zuen euskararekiko. Hala, euskara hutsean funtzionatzeko urrats bat egitea erabaki genuen.

Prozesuak luze jo du, beraz.

Bai. Esan bezala, 1991n abiatu genuen enpresa euskalduntzeko plana, eta ez dugu orain urte gutxi arte amaitu. Planari ekin genion garaian 150 langile zituen enpresak, eta horietatik %35 inguru ziren euskaraz ez zekitenak. Bi langile soilik geratzen dira euskaratzeko, baina euren egoera pertsonala dela medio (adina dela-eta erretiratzear daude) ezin izan dute ikasi. Alta, berehalakoan gara %100ean euskaldunak.

Zer esan nahi du enpresa euskalduntzeak eta nola garatu duzue?

Euskalduntzearen funtsa enpresak %100ean euskaraz funtzionatzean datza: barne dokumentu guztiak euskaraz dira, baita harreman pertsonalak ere. Kanpo harremanei dagokienez hirugarren batzuk sartzen dira tartean, eta horien arabera izan ohi da hartu-eman. Euskalduntze prozesuak iraun duen denbora tarte horretan langileei euskaraz ikasteko aukera eman zaie, euskarazko klaseak ordainduta adibidez. Horrez gain, mintzalagun saioak egin dira; euskaldun zaharrak euskaldun berriei euskaraz aritzeko dinamikak garatu dira.

Zer irabazi eta zer galdu duzue

enpresaren euskalduntzearekin?

Irabazi duguna da euskara txertatzea enpresaren kudeaketaren baitako eremu guztietan. Enpresarekiko atxikimendua ere gehitu egin dela iruditzen zait, euskara plana garatzeko erakutsi dugun determinazioa dela-eta. Asko eman digu euskara planean aurrera egiteak eta berau amaieraraino eramateko egin dugun ibilbideak.

Egia da, era berean, ibilbidean oztopoak aurkitu ditugula, baita zailtasunak ere. Determinazioz gainditu ditugu ordea, Anaje Narbaiza bezalako pertsonak erakutsi duten determinazioaz. Guztien izenak aipatzea ezinezkoa denez, berak ordezkatu dezake Elayren baitan urte hauetan guztietan egin den esfortzua.

Erreferente bilakatu zarete, beraz, enpresak euskalduntzeari dagokionez.

Ispilu garena uste dudaren arren, esango nuke ez garena bakarrak; hor kokatzen dira Euslan proiektuaren baitan lanean diharduten gainerako enpresa guztiak ere. Zentzu horretan, kontsulta eta bisita asko izaten ditugu euren erakunde edo enpresak euskalduntzeari ekin diotenen partetik. Horiez gain, Lanbide Heziketako erakundeetatik edota beste sektore batzuetatik ere izan ditugu bisitak.



utzi dituen emaitzak ere baloratu behar dira. Azken azterketa baten harira, A ereduak ikasten dutenen artean %0 da derrigorrezko hezkuntza amaitzean euskarazko B2 mailara iristen diren ikasleen portzentajea; B ereduak ikasten dutenen artean, ikasleen herenak lortzen dute aipatu maila; eta D ereduaren artean bi heren iristen dira maila horretara.

Nafarroako kasuan, eremuen arazoarekin egiten dugu topo; eremu mistoan edo erdaldunean ikasten duten ikasleek ez dute zertan euskara ezagutu. Horren harira, euskaraz ikasi nahi duten ikasleen «exodoaz» mintzatu da Bilbao, euskaraz ikasteko egunean egin behar duten kilometro kopurua dela-eta. Eta Ipar Euskal Herrian bada eredu elebiduna deitzen zaion sistema, baita Euskal Haziak-en baitan kokatzen diren hainbat ikastetxe kristau ere, euskararen hedatzeari bere ekarpena egiten diotenak. «Baina azken helburua, derrigorrezko hezkuntza amaitzean ikasle elebidunak izatea, ez dute lortzen», gogora ekarri du Bilbaok.

GAZTEAK EUSKALDUNTZEN BADIRA...

Hezkuntzaren eremua utzi eta egin dezagun salto mundu zaba-

lera. Jo dezagun hezkuntzaren bidez pertsonak euskaldundu ditugula; espazioak euskalduntzea litzateke geratzen den erronka. «Helduak beti izan dira belaunaldi galdua. Asko sozializatu den ideia da 'zu lasai, gazteak euskaldunak datoz-eta'. Ohartu gara, ordea, hori ez dela horrela, hezkuntzan euskaldunak lortu ez ezik espazioak ere euskaldundu behar direla», azaldu du Kontseiluko idazkari nagusiak. Ideia horri jarraiki, gaineratu du hizkuntzak bi arrazoi nagusigatik ikasten direla: arrazoi identitarioengatik eta pragmatikoengatik.

«Arrazoi pragmatikoen barruan jendeak uste izango balu Euskal Herrian lan egiteko euskaraz jakitea beharrezkoa dela ikasi egingo luke, euskaltegiak beteta egongo lirateke», uste du Bilbaok. Horiek horrela, bere iritziz, motibazio pragmatikoarena gutxi landu den elementua da: «Teorian, euskaraz dakien jende gero eta gehiago dago, horrek esan nahi du ahalmena dagoela gero eta lanpostu gehiagotan euskararen ezagutza eskatzeko, eta ez da egiten».

Baina badira honetan ere hainbat garaipen txiki. Denboran zaharrena Bai Euskarari

Kontseiluak «Euskaraz Bai» lelopean Gasteizko Mendizorrotzan antolatutako jaialdi baten artxiboko irudia.
Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

ziurtagiria eta honek eginiko ekarpena izango genuke. Kontseiluak berak sortu zuen tresna 2000. urtean, baina egun Ziurtagiriaren Elkartea da agiriaren kudeaketaz arduratzen dena. Honen bidez, alor sozioekonomikoko entitateen arteko elkarlana sustatzen da, euskarak eremu berriak bete ditzan. Lanean ematen dugun denboragatik edota produktu eta zerbitzuen kontsumitzaile izateagatik, ekimenaren sustatzaileek uste dute berebiziko eragina duela lan munduak gure bizimodu eta hizkuntza jardueran, horretara dator espazioak (sozioekonomikoak kasu honetan) euskalduntzeo egiten duen ahalegina.

Hainbat enpresatan urratsak egin direla onartzen du Bilbaok,

«Garaipenak» eremu ezberdinetan eta eragin maila ezberdinekin eman izan dira: izan daiteke euskara hezkuntza publikoan sartu izana edo udalek aktak euskaraz bidaltzeko aukera izatea

«Garaipenak», ordea, «baina» handi bat daramate altzoan: urratsak emateko denboraz, hauen eragin mailaz edota etorkizunera begirako perspektiba faltaz hitz egin daiteke

baina dioenez, enpresen ozeanoa kontuan hartuta oso urrats txikiak dira egindakoak. Bada kasu bat, ordea, bereziki aipatzekoa: Antzuolako Elay enpresarena. Enpresa euskaratzeko plana abian jarri eta amaitu duten bakarrak dira, horregatik, erreferente dira enpresen ozeano horretan. «Elay bezalako enpresa gehiago ere badaude eta horiek elkartu ditugu, eremu sozioekonomikoan lanketa intentsiboa egiten ari garelako», argitu du. «Euskaragileak» taldearen barnean bildu dituzte, eremu sozioekonomikoan traktore izateko bokazioarekin.

Ekimenaren abiapuntua oso basikoa da: lan mundua euskalduntzeko zutabeetako bat enpresek beraiek osatzen dutela jabetu dira; helburua ere argia da: euskaraz saldu eta lan egin nahi duten enpresen sarea indartzea eta euren eredia ezagutzera ematea. Ondorengo enpresek osatzen dute taldea: Batz, Cikautxo, Eika, Ekin, Elay, Fagor, Goizper Group, IMH, Irizar, Matz-Erreka, Mondragon Unibertsitatea-Goi Eskola Politeknikoa, Mondragon Korporazioa eta Orkli.

Bost egiteko nagusiren ildoetan jarduten dute Euskaragileak taldea osatzen duten enpresek. Lehenik, jarrera aktiboa izatea da euren arduretako bat, lan munduaren euskalduntzean zeresana duten beste eragileek hizkuntza politikan eragiten saiatuz. Bigarrenik, eredugarri izan nahi dute, egokienak diren portaerak izateko ardura betetz. Hirugarrenik, euren arteko sinergiak bultzatzen dituzte. Lauugarrenik, enpresa berriak erakartzeko bitartekari papera ezarri diote euren buruari eta, bosgarrenik, enpresa «euskaragile» izatearen onurak erakutsi eta prestigioa emateko obligazioa dute.

AKTAK, GIDABAIMENA, ERREGISTROA...

Administrazioa, eremu sozioekonomikoaren gisa, mundu arrotz bezain zaila da euskararentzat. Baina hemen ere, beste eremuetan bezala, badira hainbat garaipen txiki. Azkena, eta artikulu honen motibazioaren

jatorria, EAEko Auzitegi Nagusiaren epai bat izan da: aktak euskaraz bidaltzea zilegi da.

Iragan urriko albistea da, eta, epaia, irmoa; ez du beste helegiterik onartuko. Estatu espainoleko Gobernuak ordezkari den Carlos Urquijok eraman zuen afera auzitara, hainbat udalek aktak euskaraz bidaltzen zizkitela-eta. Zehazki, Irurako Udala-ekin izaniko tirabira batek ezarriko du jurisprudentzia. Honen arabera, EAEn euskara ofiziala denez, administrazio publikoak euskaraz aritzeko eta hizkuntza hori ulertzeko gai izan behar dira. Epaia-aren harira, Bilbaok dienez, azkena izan ezik eremu berean eman diren epaiak aurkakoak izan dira: «Zoritxarrez, legeria, oro har, aurkakoa da, nahiz eta noizean behin ustekabekoak hartzen ditugun».

Denboran urte batzuk atzera eginez, topa ditzakegu bestelako garaipen txiki batzuk ere, hala nola Erregistro Zibilean inskripzioak euskaraz egin ahal izatea edota gidabaimena euskaraz

Gidatzeko baimena euskaraz atera ahal izatea lorpen garrantzitsua izan da. Beheko argazkian, kanpainaren irudia.

GAUR8

atera ahal izatea. Lehenengoari dagokionez, 2005. urtean du jatorria. Orduko hartan erabaki zen, ahoz edo idatziz euskaraz zuzenduz gero, inskripzio lan guztiak euskaraz egitea, hala nola: seme-alaben jaiotza inskripzioak, ezkontza inskripzioak eta heriotza inskripzioak, besteak beste. Lege aldaketa Hego Euskal Herriko erregistro zibiletan gauzatu zen.

Urte batzuk beranduagokoa da, 2009koa hain zuzen, gidabaimena euskaraz atera ahal izateko ikasmateriala. «Argia» astekariak publikatutako erreportaje batek dioenaren arabera, badira 90eko hamarkadatik gidabaimena euskaraz atera izan dutenak, baina ikasmaterial teorikorik gabe eta azterketa praktikoa itzultzaileekin eginez. Zehazki, EAEn azterketa teorikoak euskaraz egiteko aukera, legez, 1995. urtetik dagoela dio, baina ikasmateriala falta izan da urte luzeetan.

Azterketa teorikoa gainditzeko ikasmateriala 2009an publi-

katu bazen ere, Lakuako Gobernuak 2011n abiatutako kanpaina batek argi uzten du azterketa praktikoa euskaraz egiteko aukera gehiago luzatu zela. Kanpaina azterketa teorikoa euskaraz egitera bideratzeko helburuarekin jaio zen, baina azterketa praktikoa dagokionez Trafiko Zuzendaritza Orokorrekin akordioa guztiz itxi gabe zutela zioten.

Honen guztiaren harira galdetzen du Paul Bilbaok ea zergatik itxaron behar izan den horrenbeste euskara duela 30 urtetik ofiziala bada. «Gauza batzuk oso erraz konpon zitezkeen duela urte batzuk», adierazi du. Administrazioan ere «baina» garbiak identifikatzen ditu Kontseiluko idazkari nagusiak: Justizia, Osasungintza eta Barne Saila. «Justizia oso eremu arrotza da euskararentzat. Guk eskatu izan dugu jurista euskaldunetz osatutako zirkuituak sortzea, baina diote horrekin justiziaren inpartzialtasuna galduko litzakeela», azaldu du.

Abokatu Euskaldunen Sindikatua sortu zuteneko garaia ere ekarri ditu gogora. «Determinazio osoz eutsi zioten euskaraz lan egiteari. Baina zenbait lege irakurtzen hasten zirenean sekulako zailtasunak sortzen ziren epaketak garatu ahal izateko, eta ez zen itzultzaileen ardurara. Modu horretan argi geratzen zen ezin zela epaketa garatu norberaren hizkuntza eskubideen baitan», azaldu du.

Aipatu zailtasun gehien dau den eremuak, gainera, pertsonen gehien eragiten dieten eremuak direla. Medikuek, epailek eta abarrekin elkar ulertzea besterik ez zaio geratzen norbanakolari, hein handi batean euren eskuetan gaudelako. Beraz, ondoriozta daiteke eremu izan direla euskararen normalizazio prozesuari lagundu dioten hainbat garaipen txiki, baina guztiak duela atzean bere «baina» hori, hizkuntzaren normalizazio prozesuan aurretik egiteko bide luzea dagoela adierazten duena.

«BAINAK» ALDE BATERA UTZI ETA AHALDUNTZEA, ETORKIZUNEKO ERRONKA

«Garaipen txiki» eta «bainak» alde batera utzi eta euskararen normalizazio prozesuaren etorkizunera begira ere jarri gara Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusiarekin. Finean, hizkuntza baten berreskuratze prozesuak bi oin dituela dio: politikoa eta soziala, hots, hizkuntza politika egoki bat eta berau sostengatuko duen gizartea. Hori horrela, euren jarduna lau zutaberen gainean garatzen du Kontseiluak: baldintza politiko egokiak, baldintza juridiko egokiak, baldintza ekonomiko egokiak eta baldintza sozial egokiak. Azken honetan kokatuko litzateke euskalgintza, eta gainerako eremuetan eragitea izango luke helburu.

Baldintza politiko egokiak izateak hizkuntza politika berri eta eraginkor bat eskatzen du Bilbaoren esanetan, eremu guztiak kontuan hartu eta plangintza zehatz bat garatuko lukeena, bere epe eta ebaluazioekin. «Hori da hemen daukagun arazoetako bat, asko ibili baita harian-harian eta progresiboki filosofia. Plan bat egitean behar duzu plan horren jarraipena ere egin; helburuak, epeak eta ebaluazioak behar ditugu, ondoren esateko egoniko edo

aurreratutako hori ongi egin den edo ez», azpimarratu du.

Bestalde, baldintza juridikoei dagokienetz, arkitektura juridiko berri baten beharra aldarrikatu du. Dioenez, euskara ofiziala izan beharko litzateke zazpi herrialdeetan, baita lehentasun eta ezagutu beharreko ere: «Horrek ez du esan nahi legez euskaraz jakitea eskatzen bada legea indarrean sartu eta hurrengo egunean euskaraz ez dakien hori Euskal Herritik botako dugunik».

Arlo ekonomikoari erreparatuta, uste du euskara inbertsio gisa ulertu behar dela, baina ez gaur egun arte egin den moduan: «Beharrezkoa inbertitu behar da euskarari. Inbertsioak ez ezik, arauak ere behar dira, eta hemen diru publikoa erabili izan da arauak balio zezakeenean. Araua ezin da beti erabili, eta hor sartzen da inbertsioen kontua, euskararen erabilera sustatzean».

Zutabe sozialean kokatzen dira, berriz, «Euskaraz bizi nahi dut» kanpaina edota azkenaldian gero eta gehiago aditzen den ahalduntzearen kontua, euskalgintzaren bizkar gainera erortzen diren bi elementu gisa, etorkizuneko bidea marraztuz.





}



Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

ATERPERIK GABEKO AULKIAN LO EGITEN DUTENAK ETA ETXEKO EPELEAN HUTSIK DAUDEN AULKIAK

Gabon sasoia ez da iragarkietan margotzen duten bezain perfektua. Ez dauka perfume usain zoragarriarik, gorritz margotutako irribarre infiniturik, argizariz gozatutako mahai eder eta ordenaturik. Gabon sasoian bada aterperik gabeko aulkian lo egiten duenik, eta bada etxeke epelean hutsik dagoen aulkirik.

Eta zergatik dira zorrotzagoak eta nabarmenagoak hutsunetak etxeak beteago dauden garaian? Eta zergatik bihurtzen dira ikusezin kalean bizi direnak Gabonetako argi distiratsuen pare-

an jartzen direnean? Goiko argazkiak baditu, behintzat, Gabonetako kolore ofizialak; Gasteizko banku hotz horretan etxea duen Santa Clausen gorria eta dispertsioaren gordina salatzen duten zapien zuria.

Egoera guztiek dute konponbidea horretarako borondatea baldin badago. Olentzerori eskatuko diogu, baita Santa Clausi ere. Eta horiek baino gehiago agintzen duen bizardunik bada, baita hari ere. amagoia.mujika@gaur8.info

KONTSUMOAK GASTATUTA

Irudimena eta patxada,
Gabonetako kontsumoari
neurria emateko bideak

 **KONTSUMOA** / amagoia.mujika@gaur8.info

Gabon sasoian kontsumitzaileak ez du arnasmune handirik topatzen. Iragarki bonbardaketa latza izaten da, norabide askotatik datorrena, eta erraza izaten da neurria galtzea neurriak tokirik ez duen egunetan. Kontsumitzaile elkarteetatik urtero mezu berdina errepikatzen dute; patxada, planifikazioa eta burua hotz.

Gabonak neurri-rik gabeko sasoia bihurtuta daude; neurri-rik gabe jan eta edan eta neurri-rik gabe kontsumitu. Zoriontasun infinituaren izenean jo eta su jarduten dute iragarkiek, kontsumitzailea arrastaka auskalo nora eramanez. Horregatik, kontsumitzaile elkarteek urtez urte saiakera berezia egiten dute zurrumbilotik atera, Gabonetako argietatik apartatu eta aholku batzuk emateko. Gutxi edo gehiago –eta batez bestekoe- dituzten ertz guztiekin– aurtengo Gabon sasoian etxe bakoitzean 644 euro gastatuko direla kalkulatu da; 274 euro jostailuetan eta oparietan; 264 euro jatekoan eta edatekoan; eta 106 euro, loterian.

2008. urteaz geroztik, krisiaren itzala igartzen hasi zenetik, joera aldaketa bat sumatu da euskal kontsumitzaileen jokarari. Neurtuagoa eta planifikatuagoa izan da Gabonetako kontsumoa azkenengo urteotan, kontsumitzaile elkarteek ematen dituzten aholkuetatik gertuagokoa. Ez elkarte horien eraginez, krisiak behartuta baizik. Baina kontsumitzaile elkarteetatik joera hori nabarmendu dute, eta betiko aholkuetan indarra jarri.

Kontsumo arduratsuen bi-dean eman beharreko lehen urratsa Gabonetako menuak eta

opariak aurrez eta patxadaz pentsatzea da. «Ideia ona da Gabonetako erosketak aurreratzea, betiere ondo planifikatu eta gero. Produktu asko, elikagaiak bereziki, garestitu egiten dira Gabonak gerturatu ahala», nabarmendu du Nafarroako Iratxe Kontsumitzaile Elkarteak. Iaz, esaterako, legatza %34 garestitu zen Gabon sasoian; ganba freskoak, %31, eta, bisigua, %25.

Elikagaiak aurretik erosi eta izoztea aukera ona da, baldin eta izozteko prozesua egoki egiten baldin bada. «Hotzaren katea errespetatu beharra dago. Elikagaia lehenbailehen izoztera sartu, aurretik iraungitze data ondo begiratu, eta, behin desioztuta, ezin da berriz izoztu. Era egokian eginez gero, elikagaiak bere propietate guztiak bere horretan mantenduko dituzte», nabarmendu dute Iratxetik.

Prezioak konparatzea gomendagarria da, bai elikagaien kasuan eta baita oparien kasuan ere. Horretarako, noski, garaiz ibili beharra dago. «Komeni da saltokiak lasai dauden garaian joatea, ez jende asko dabilenean. Eta toki bateko eta besteko prezioak koaderno batean apuntatzea».

Eskaintzek ere toki berezia hartzen dute sasoi honetan, modu erakargarrian eta distiratsuan nabarmentzen diren eskaintzak. «Adi eskaintzekin. Ondo irakurri informazioa eta kalkulatu dirutan benetan es-

kaintza ematen duen bezain erakargarria ote den. Eskaintzan ez dagoen produktuarekin konparatu eta hotzean aztertu».

KONTUZ FINANTZAKETA MODUEKIN

Finantzaketa moduek ere garrantzi handia daukate kontsumo arduratsu bat egiterako orduan. «Egun saltoki askotan erosketak geroratzeko edota epeka ordaintzeko modua eskaintzen dute. Baldintzak arretaz aztertu behar dira, ordaindu beharreko interesak ondo kalkulatu eta hasierako prezioetik garestitzea zenbaterainokoa den ikusi».

Faktura ondo gordetzea ere oso gomendagarria da. «Beti faktura exijitu behar da eta ondo gorde. Edozein aldaketa edo erreklamazio egiteko beharrezkoa da faktura. Eta garrantzia gordetzea ere komeni da».

Gainontzean, irudimenak eta berrikuntzek ere lagun dezakete poltsikoaren astinduari eusten.

2008. urteaz geroztik, krisiaren itzala igartzen hasi zenetik, joera aldaketa bat sumatu da. Neurtuagoa eta planifikatuagoa izan da Gabonetako kontsumoa azken urteotan

«Jatekoari dagokionez, askotan osagai arruntagoekin eta irudimena erabiliz plater oso gozoak, gustagarriak eta originalak osa daitezke. Emaiza bikaina izan daiteke»

Gabon sasoian hiriak iragarki mezuz betetzen dira, neurririk gabeko kontsumoa pizteko giroa aproposa.
Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS



«Jatekoari dagokionez, askotan osagai arruntagoekin eta irudimena erabiliz plater oso gozoak, gustagarriak eta originalak osa daitezke. Emaiza bikaina izan daiteke, eta ez hain garestia», nabarmendu dute Iratxetik.

Itxaroten jakitea ere aukera osasungarria izan daiteke. Ez da nahitaezkoa dena Gabon sasoian erostea. Aste pare bat itxaronez gero, eskaintza oso onak topa daitezke, bereziki arropari dagokionez.

Interneteko aukera ere hor dago. Bertan kontsumitzaileak aukera zabalagoa topa dezake, prezio hobeak eta konparatzeko bidea. Datuek diotenaren arabera, *on line* erosketen aukera gero eta zabalagoa da kontsumitzaileen artean. Aurreikusten da Internet bidezko erosketak %28 igoko direla iazko datuekin alderatuta. Baina hor ere, ardura eta patxada mesedetan izaten dira.



ZORIONTASUNA KONTSUMOAREKIN EHIZATU NAHIA

Kontsumo konpulsiboa ez da gaur goizekoa. Badira hamarkada zenbait Europa mailako kontsumitzaile elkarteak kezka agertzen hasi eta bide horretan lanean hasiak direla. Izan ere, neurririk gabeko kontsumoak gehiegizko zorpetzea dakar eta Europar Batasuna kezkatuta dago arazo sozioekonomikotzat hartzen duen horrekin.

Publizitateak eraikitako mezuaren arabera, zoriontasuna eta produktuak eskuratzea estu lotuta daude. Hartara, kontsumitzeko beharra sortzen da, gauzak erosteko beharra, zoriontasunaren gakoa hor dagoelakoan. Arazoa da behin produktu hori eskuratuta kontsumitzaileak ez duela espero zuen zoriontasunik jasotzen, edota ez diola irauten denboran. Eta helmuga hurrena erosi beharreko horretan jartzen du.

Bide horretan, Europa mailan egindako ikerketa baten arabera, herritar helduen artean %33k erosketekiko mendekotasuna

dauka (emakumezkoen %34k eta gizonezkoen %32k). Horietatik %18k era moderatuan, %15ek modu larri samarrean, eta %3k, modu patologikoan. Gazteen kasuan, mendekotasun hori larriagoa da, %46ra igotzen baita (emakumezkoen %53 eta gizonezkoen %39); gainera, %8 modu patologikoan dago kontsumoari lotuta.

Gainera, aipatu ikerketa horrek hankaz gora jartzen ditu hainbat aurreiritzi: kontsumoa ez da depresiorako joera duten emakumeen arazoa. Ikerketak mahai gainean jarri duenez, gazteen artean arrakasta sozial handiena dutenak eta ederrenak sentitzen direnak dira gehien kontsumitzen dutenak. Helduen kasuan, berriz, beren itxura fisikoarekin gustura ez daudenak dira gehien kontsumitzen dutenak.

Europa mailako ikerketak bistaratu duenez, 16 urteren bueltako gazteek kontsumo konpulsiboan erortzeko

arrisku handiagoa daukate. Baina, zergatik? Adituen hitzetan, «orokorrean gazte europarrentzat erosketak egitea da aisialdirako ekintzarik dibertigarrienetakoa. Merkataritza gunen handietan sartu eta neurririk gabe erostea gustatzen zaie, gauza berriak eskuratzea, kontrolik gabe eta ardura ekonomikorik gabe. Nerabezaroa oso garai inpulsiboa da, norberaren kontrola oso zaila izaten den garaia. Eta nerabeak zaurgarriagoak dira publizitatearen aurrean, aiseago harrapatzen dituzte iragarkietako mezuek». Galdera da helduarora iristean joera berdinarekin segituko ote duten.

Badira egoeraren larritasuna zehazten lagun dezaketen gakoak: maiz tristatu egiten naiz dirua modu inozoan gastatu dudalako; triste nagoenean zerbait erosi eta animatu egiten naiz; bulkadaz egiten ditut erosketak; gustatzen zaidan zerbait ikusten dudanean, ezin dut burutik kendu erosi arte.



Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Argiarekin jolasean

Hala eman ditut egun batzuk azken hilabeteen: argiarekin jolasean. Izan ere, aspalditik egin nahi nuen esperimentu bat gauzatzen hasi naiz bizi-

toki berriak hala eskainita. Azken urteak kale artean eman ditut eta leihotik pareko etxea ikusten delarik ez dago esperimentu hau egiterik, edo, behinik behin, ez da horren ikusgarria. Zein da esperimentua? Ba gelako leihoa kartoiekin estaltzea eta zulo bat egitea, hori besterik ez. Emaizta, leihotik ikusten den hori gela barruan proiektatuta ikus-tea. Nire kasuan, Olabeagako itsasadar ertzeko argi ilararekin lokartzea eta egunsentiaren gorria ohe ondoko pare-tan nuela esnatzea.

Txoko hau esperimentua azaldu eta partekatzeko baliatzea pentsatu dut, besteak beste, amaitzear dugun 2015 hau, Argiaren Nazioarteko Urtea izan baita, argiaren gaineko hainbat aurki-kuntzaren efemerideak direla-eta: duela mila urteko Ibn Al-Haythamen (Alhazen bezala ezaguna Mendebaldean) optika-ko lan iraultzaileak; 1815ean, argiaren uhin izaeraren gaineko Fresnelen proposamena; 1865ean, Maxwellek argiaren hedapenerako proposaturiko teoria elektromagnetikoa; eta, duela ehun urte, Einsteinek proposaturiko efektu fotoe-lektrikoa azaltzeko hipotesiaren frogapena Millikanen eskutik. Urte bereko azaroan Einsteinek Erlatibitatearen Teoria Orokorra plazaratu zuen eta hor ere nabarmena da argiaren izaeraren garrantzia. Ze modu hobea gertaerok ospatzeko argiarekin jolastea baino?


Aipatu esperimentua, irudiko ezkerre-ko bi irudietan jasotzen dena da. Lehen-dabiziko aldiz leihoa kartoiez estali nue-nean –kartoiak berak zuen zirriketua utziz eta kartoia leihoaren kontra oso ondo jarri gabe–, emaitza honakoa izan zen: San Mames eta itsasadarra, itzulbi-ratuta gelako pareta batean (irudimen apur batekin, mesedez). Esperimentua ondo gauzatuz gero, eskuineko irudikoa-ren moduko proiektzioa lortzen ahal da. Beheko irudian esperimentu honen ohi-ko eskema jasotzen da, kamera ilun gisa ezaguna, baina kasu zehatz honetan ka-mera estenoipeiko deritzana. Artikulua prestatzeko orduan jakin dut hala dei-

tzen zaiela lenterik erabiltzen ez duten kamara ilunei, soilik zulotxoa (esteno-poa, grezieratik: *esteno*=estu eta *ope*=irekidura) eta espazio (kutxa, gela...) iluna. Hala, gela batean sartzen den argi guztia zulotxo batetik soilik sartzen ba-da, lortzen dena honakoa da: puntu ba-koitzetik heltzen den argi izpiak gelako hormetako puntu bakarrean jotzea, eta, beraz, zulotxotik kanpora begiratzuz iku-siko genukeena barruko hormetan proiektatua ikus-tea. Itzulbiratzea zerga-tik ematen den nahiko ulergarria da: zu-lotxotik zerua ikusi nahiko bagenu, be-gia zulotik behe-rago eraman beharko genuke eta kalea ikusteko berriz zulotik goraxeago. Beraz, zerua gelako lurrean izango dugu, eta, kalea, sabaian.

Esperimentu hau hobetzea badago. Lehenik eta behin, leihoa ahalik eta ho-beren itxita eta beste edozein argi iturri ekidinik. Bigarrenik, zulotxoarekin jo-lastuz. Irudiko luzanga baino hobea da

zulo biribila, errefrakzioa ekiditeko. Gela baterako gomendagarria 2,5 mm-ko zu-loa da. Zuloaren diametroa handituz ar-gitasun gehiago sartuko da eta kanpoko elementu gehiago ikusteko aukera dago, baina irudia ez da oso garbia, desenfoka-tua baizik. Diametroa txikituz, berriz, irudia hobe enfokatzen doa, baina pare-taren eta zulotxoaren arteko distantziak (distantzia fokala) zehazten du enfokea.

Efektu hau lehen aldiz aitarekin des-kubritu nuen, txikitan, eguzki eklipse bati begiratu ordez orri zati batean zulo-txo bat egin eta autoaren txaparen aur-ka eguzkia proiektatu zuenean. Ostean, askotan egin dut; besteak beste klasean asperdurak jota deskubritu nuen nola hatz lodiak eskuaren aurka uzten duen zulotxotik lanpara fluoreszenteen argi luzanga mahai gainean primeran proiektatzen den, eskuak berak egiten duen itzalean. Jolasak jolas, beti dago zer ikasi. A, eta ondo pasa argiarekin! •



Nola eraiki gela estenoipeiko bat.

GAUR8

{ koaderno } **Garazi Goia**

Ez da leku bat. Ezlekuak

Goizalde Landabasoren “Babeserako kopia” liburuaren sarrerako Vladimir Holanen aipuak dio «igande euritsuetatik babeste-ko aterpea» dela poesia. Durangoko Azokan nobedadeetako bat izan den poesia liburu eder horrekin hasten dut gaurko nire kontaketa.

Euriz eta hotzez tindatutakoak dira nire oroitzapenak. Ez dakit memoriak zergatik horiek mantendu dituen hor buruan, hilezkortuta bezala. Neguko asteburu luze haietan, egutegian ilusioz apuntatuta egoten ziren egun haiek. Duela hogeita lau urte ingurukoa da lehenengo oroitzapena. 1991. urtea. Euskaraz entziklopedia hura argitaratu zen urtea. Azokan presentzia berezia izan zuen. Edo, hori gogoratzen dut behintzat. Entziklopediak oraindik baliagarriak ziren garaia ziren. Harrotasunez esaten nuen nik baneukala hura etxean. Eta, handik aurrera, erdaratik euskarara itzulpena egiten ez nuela lanik egin beharko.

Bigarren oroitzapena 1996. urtekoa da. Pako Aristirekin hitz egin nueneko arratsalde hura. Euria ari zuen egun hartan ere. Egun iluna zela gogoratzen dut. Idazten jarraitzea animatu nindueneko une hura datorkit akordura, idatzi berri nuen ipuin motz haren il-dotik. “Kcappo”, “Irene” eta “Krisalida” trilogia irakurri berria nuen. Ez dakit orduan zehazki nola interpretatuko nituen bertan idatzitakoak. Ziurrenik nerabegaroko inozentziaz. Baina, gogoan dut, istorioan kontatzen ziren harremanak ez-arruntak iruditu zitzaizkidala. Testuinguru arrunt batean kokatutako harreman ez-arruntak. Hilketak odoltsuak. Bortxaketak. Haragikeriak. Eta, idazlea ezagutzea berezia izan zen. Arregatasunez tindatuta dago bigarren oroitzapena.

Horiek dira azokaren inguruko nire lehenengo memoriak.

Tamalez aurten ez dut joaterik izan, baina gertutik jarraitu ditut egunero albisteak.

Harkaitz Canori egindako elkarrizketa batean irakurri dut honokoa: Durango ez dela leku bat, euskal kul-

tura zentrala den unibertso paralelo batera egindako sartu-irten iragankorra baizik.

Azokari buruzko albisteak irakurtzen jarraitu dut. Irakurri nahi ditudan liburuen zerrenda bat egiten hasi naizen bitartean. “12etan bermuta”. “Ezpainak arrainak bezala”. “Neguko egunerokoa”.

Ez da leku bat. Buruan darabilkit.

Goizalde Landabasori egindako beste elkarrizketa batean ezlekuekin bihotza erdibituta zegoela zioen. Existentzia ukatzen diegun tokiez ari zen. Deseroso sentitzeaz. Dagoen lekura ezin egokitu ahal izanaz.

Ez da leku bat. Esanahi ezberdinez pentsatzen hasi naiz. Urtean zehar kulturarako sentsibilitaterik gabeko jendeak azaleko militantzia erakutsi nahia akaso.

Irakurtzen jarraitu dut. Sexismoa antzemateko saio bat egon dela zioen goiburuak. Gazteentzako filmek eta bestelako programek erakusten dituzten jarrera

Neguko asteburu luzeetan egutegian ilusioz apuntatuta egoten ziren egun haiek. Duela hogeita lau urtekoa da lehenengo oroitzapena. 1991. urtea. Euskaraz entziklopedia hura argitaratu zen urtea. Azokan presentzia berezia izan zuen

eta mezu sexistez aritu omen da Katixa Agirre idazlea. Berrogeita hamar urteren ostean oraindik hain aurrerapen gutxi egin dugula ohartzeak tristura eman dit.

Hala ere, berrogeita hamar urteotan azoka existitu izan ez balitz, gure kultura zer izango ote litzatekeen ez dakit.

Zer esango dute azokaz gure ondorengoek hemendik berrogeita hamar urtera. Ezlekuak egunen batean leku bihurtzen direla pentsatu izan dut. Akaso, ordu-rako leku bihurtuko da.

Londresko igande euritsuan poesia irakurtzen jarraitu dut. •

«Nire lan pertsonalena da, barnetik ateratakoa, eta baita ausartena ere»

Bost urtez jarraitzaileak zain eduki eta gero disko berriarekin dator Olatz Zugazti: “Ur goiena, ur barrena...”. Bakarka argitaratzen duen bosgarren diskoa du. Sentimenduetatik, eta bereziki mintzen duten gauzetatik, heltzen zaio inspirazioa konpositore eta kantariari. Euskal Herriko gaur egungo egoerak sortutako hase-reak eragindako hausnarketa nabaria da disko honetarako idatzitako hitzetan. Euskal gizarteak bere burua definitzeko, eta, ondorioz, ikusteko, duen jorera berria du hizpide. Euskaltasunean ausart eta harro izatea aldarrikatzen du.

Euskal kantagintza tradizionala beti berarekin eramanda, bere sorkuntza propioek osatzen dute diskoaren zatirik handiena. Pako Aristik “Bizitzaren baitatik” kantuarien hitzak sortu ditu, eta, musikan, Brendan Grahamen doinuak izan ditu lagun Zugastik.

Nola deskribatuko zenuke zure azken diskoa?

Nire lan pertsonalena da, nire barnetik ateratakoa; ausartena dela ere esango nuke. Nire pentsaera azaleratzeko ausardia txoa izan dut lehen aldiz, biluzten hasteko, baina pixka bat neurtzen. Izan ere, nire buruari ere zentsura jarri diot, kanturen bat edo beste apartatu egin dut.

Esan dezaket protesta kantu mota bat biltzen duela. Ez da inperialismoari buruzko protesta, finean ezagutzen baitugu zer den. Nolabait gure erantzunarekin ados ez egotearen ondorioz egindako hausnarketa bat da. Astindu bat eman nahi diot herriari esateko gogoeta dezan mintzatzen ari garen moduaz, gure herriari dagokion kokapen horretatik hain urrun joanez. Herri menderatu gisa izan beharko genukeen jarreratik, nire ustez, oso urrun. Guk geronek

desagerrarazten dugu gure herria, gure jarrerarekin, ontzat emanez gauza batzuk, eta ia ez hitz eginez hainbat gauzez.

Zein da hitzen garrantzia?

Zein hitz erabiltzen den eta zein ez garrantzitsua da. Esan ohi da hizkuntzak berak pentsaera eragiten duela. Gizakiok hizkuntza asmatu dugu, baina hizkuntzak berak gero gure pentsaera moldatzen du. Adibide bat jartzearen: harritu egin ninduten orain dela hamar bat urte ikastolako batzordean nengoela aztertzeiko iritsi zitzaizkigun dokumentu batzuek. Hor ikusi nituen konplexuek eragindako hainbat diskurtso. Esate baterako, aipatzen zen euskaldunak garela, baina unibertsalak. Baina, nik diot, euskalduna zarenez zara unibertsala.

Badirudi aldarrikatu behar dugula euskaldunak garela baina ez garela gure zilborrari begira, mundu guztia bere zilborrari begira dagoenean. Bidaian joaten bazara konturatzen zara denek dauzkatela beren banderak, eta ez hori bakarrik, baita beren armadak ere, mundua nazionalista dela. Estatu nazionalista eta gainera zapaltzaileak dira.

Besteok, defendatzen ari gare-nok, azkenaldi honetan justifikatu egin beharra izaten dugu, eta anitzak garela aldarrikatu, Euskal Herria anitza dela. Baina hori ez da kontua; kontua da nork agintzen duen hemen. Niri berdin dit zein koloreko jendea dagoen hemen

Hitzak erabiltzerakoan badi-rudi gu ere difuminatzen goazela. “Herria” hitza ez esateagatik erabiltzen dugu “gizartea” askotan, eta gizartea esatearekin ukatzen dugu herri bat dagoela. Zein gizarte da aipatzen dugun hori?

Ausardia aipatu duzu. Zer ikuspegitik ausartu zara zu zeu, ikuspegi kritiko horretatik?

Bai, alde horretatik. Era berean, hori bai, harritzen nau esan didatelako ausarta naizela, eta kezkatzen nau. Iruditzen bazaie ausarta dela ni esaten ari naizena, uste baino okerrago gaude. Azken finean, basamortu bat

bezala da. Sentitzen da Euskal Herria desagertu balitz bezala, baina era berean negar egiten dugu. Badakigu zerbait ez dagoela ongi, konturatzen gara nola erasotzen ari diren hizkuntza, hezkuntza... Atal batzuk dauz-kagu ez daudenak ondo, eta ez dira babestuta egongo estatu bat ez dugun bitartean. Edo hori eduki ezean, gutxienez jakin arte nola gauden, hau da, diagnosi bat egin beharra dago. Ezin da ukatu zerbait okerra dagoenik oinarrian; ezin da adarretatik hasi zerbait konpontzen, lehenengo enborra dago, eta gero hizkuntza, hezkuntza eta beste atal guztiak.

Hegoaldean azkenaldian, eta Iparraldean aspaldidanik, hedatu da identitate kontuak, nortasun kontuak utzi behar direla, atzerakoiak direlako. Garrantzia dutenak gizarte kontuak dira. Baina nor izan gabe zer egin daiteke? Identitate gabe zerbait egin al daiteke? Ez, beti da identitate bat; orduan zureari uko egiten badiozu, beste bat hartzen ari zara. Guk ezetz uste dugu, identitateak alde batera uzten ditugu, eta gizarteaz hitz egiten dugu. Aldiz ez gara konturatzen joko horrekin beste identitate bat hartzen ari garela; Hegoaldean, espainola, eta, Iparraldean, frantsesa.

Zu zeu sentitu zara ausart edo jendeak sentiarazi zaitu horrela mezu hori transmititzean?

Ni kontziente nintzen gauza horiek esaten dituen jendeak, adibidez Pako Aristik, arazoak dituela. Aristi arbola astintzen hasi da eta erasorik handienak etxetik etorri zaizkio, bere taldekideengandik, herritarrendik, abertzaleenengandik. Orduan, horren kontziente izanik, pentsatu dut zerbait esan beharra dagoela; ezin dugu gelditu hori ukatzen, ezkutatzen eta beti negarrez. Eta gero hori sentiarazi didate.

Ipar Euskal Herria ezagutzen duzu. Hegoaldeaz ari zara edo mezua Euskal Herri osora egoki daitekeela uste duzu?

Euskal Herri osoaz ari naiz, jakina. Gertatzen dena da denbore-

OLATZ ZUGAZTI

KANTARIA ETA KONPOSITOREA

Kantari hernaniarrak bere musika eta pentsaera ezagutzeko parada ematen duen diskoa argitaratu du, eta kontzertuak eskaintzen ari da lana deskubriarazteko.

tan ezberdin gaudela; gu orain bizitzen ari garen demokrazia-
ren iruzur hori Iparraldean le-
henagotik zegoen, “*Liberté, éga-
lité, fraternité*” horren barruan
hartu zuten Euskal Herria az-
pian. Ze “*liberté*” da hori? Ez da
guretzako, Frantziarentzako da.
Sakabanatuta gaude, kurduak
bezala. Horri irtenbidea emate-
ko, ez litzateke seguru asko de-
nok batera izango.

**Ezinegon bat sortuko al du dis-
koak zentzu horretan?**

Ez dakit, baina gustatuko litzai-
dake pixka bat pentsaraztea, zer
esaten ari garen, zer aldarrika-
tzen ari garen, zein den gure mi-
na benetan, nondik datorren gu-
re mina, zein den gure gatazka
azkenean.

**«Ur goiena, ur barrena...» dis-
koa egiteko lan prozesua nola-
koa izan da?**

Behin batzorde baten egotea to-
katu zitzaidan ikastola batean,
ustez nire aldeko medio batean,
abertzalea. Aldiz, konturatu nin-
tzen konplexu pila batez ingura-
tuta nengoela, oso barneratuta
daukagula gu gaiztoak ez gara
esan behar hori. Hortik aurrera
egunero etxera iristen nintzen
haserre. Pixkanaka gauzak idaz-
ten nituen, kantuen hitzak, eta
gero zakarrontzira bota. Azkene-
an, baina, uste dut lortu dudala
sintetizatzea erdi ironiaz zertxo-
bait, hasiera bat.

**Inspirazioa sentimendu horie-
tatik etorri zaizu?**

Bai, baina zaila da gai hau kan-
tuetara ekartzea. Norentzat ari
naiz? Bizitzan inspirazioa denak
ematen dizu, min egiten duen
guztiak. Azkenean, minak eragi-
ten du gehienbat, nire kasuan
bai behintzat.

**Orain arte kantuen hitzez hitz
egin dugu. Eta musika?**

Musika jartzeko normalean har-
patik abiatzen naiz, harpa es-
kuetan daukadala doinutxoren
bat sortuz. Batzuetan doinuak
aparte sortzen zaizkit, eta gero
uztartu egiten ditut hitzekin.
Bestetan, lehenengo hitza dago
eta harekin jolasten saiatzen
naiz, eta gero doinutxoren bat



Argazkiak: Isabelle MIQUELESTORENA

*«Harritzen naiz
esan didatelako
ausarta naizela, eta
kezkatzen nau.
Iruditzen bazaie
ausarta dela ni
esaten ari naizena,
uste baino okerrago
gaude»*



atera daiteke. Batzuetan progra-
mazio oinarritxo bat jartzen dut
eta horren gainean sortzen ahal
da doinuren bat. Horrela aurki-
tu ditut musikari hauek, zuze-
nean, aldamenen ditudanak.

**Gazteak dira zurekin diskoan
aritzen diren musikarietako
batzuk.**

Bat da gaztetxoa, baditu 19 urte,
beste batek 26 ditu eta hiruga-
rrenak ia berrogei. Bi zahar-
renak ezagutzen ditut gaztetxoak
zirenetik, alde horretatik oso
gauza polita da. Beraiei galdetu
eta denek baiezko borobila
eman zidaten lehen unetik.

**Hor ikusten dugu Benito Ler-
txundirekin eta zurekin gerta-
tu zenaren antzekoa; zu gaztea
zinenen ezagutu zintuen eta
bere lanetan kolaboratzea pro-
posatu zizun.**

Bai, igual bai. Egia esan, nik ez
diot egutegiari begiratzen;
kointziditu da gazteak direla

eta gainera oso ederrak direla,
ezta? Denek esaten didate zein
guapoak diren! Baina ez diot
begiratzen ez egutegiari, ezta
gauza horiei ere, baizik eta ta-
lentuari eta dohainei.

Gaztetxoen, esaterako, Orio-
ko ikastolatik ezagutzen dut, 8
urte zituenetik. Ematen nuen
kantagintza klase batean ezagu-
tu nuen; esku soinua jotzen
zuen eta umetatik izan du oso
belarri ona. Gero teklatura bere
kasa ikasi zuen. Belarriz dena
hartzen du eta oso bizkorra da.
Besteak ere, oso serioak dira,
eta lanean gustua daukatenak.

**Disko honetan harparen kon-
painian musika desberdinak
aurkitu ditugu.**

Agian izango da Euskadi Irra-
tian neukan “Kantaita” saioa-
rengatik, munduko musikei es-
kainitako saioa. Askok gustatu
izan zaizkit beti Mediterraneo-
ko eta Europa ekialdeko musi-
kak, baita zeltak ere, Europa in-

gurukoak asko. Egon daiteke
hortik ere. Badago kantu bat
nik erdi hip hop antzekoa dela
esaten dudana, eta hori da de-
netan protesta gehien egiten
duena. Nolabait mezuak behar
zuelako izan oso esana kanta-
tua baino gehiago: «Eraso txiki
guztiak handien zati besterik ez
dira». Rap bat balitz bezala abia-
tu nuen.

**Mendekotasuna, zapalkun-
tza.. aipatu dituzu asko zure
lanetan. Musikak zer ematen
dizu pertsona gisa?**

Alde batetik sentitzen dudana
dago, pertsona bezala eta gizar-
tekide bezala, eta orduan idatzi
egiten dut. Baina, beste alde ba-
tetik, musikaria naiz eta kan-
tuak egiten ditut. Nolabait bi
mundu horiek uztartzen saia-
tzen naiz. Niretzako musika ga-
rrantzitsua da, nire bizitzan be-
tidanik egon da. Saiatzen naiz
pixka bat transmititzen musi-
karen bidez ere. Batzuetan hori

ez da erraza izaten. Zenbat eta gazteago izan, are eta gehiago saiatzen zara erakusten instrumentua zenbat menderatzen duzun, zein ondo jotzen duzun... Horretarako nota eta moldaketa asko sartzen saiatzen zara. Talentu hori erakutsi nahi duzu nolabait. Heltzen zoazen heinean, husten joaten zara, nota eta moldaketa gutxiago sartzen. Oraingo lan honetan nabarmena izan da hori; lan pertsonala nola den, ikusi dut musikak hutsune gehiago behar duela, espazio gehiago sortu ditut, horien bidez zerbait sentiarazi nahian. Jendearen bihotzetan zerbait ukitzea lortzen badut, asko da.

Disko berri hau aurkezteko hainbat kontzertu egin dituzu Iruñean, Bilbon, Donostian, Markinan, Durangon eta Baionan. Nola sentitu zara egindako emanaldietan?

Polita izan da, adibidez, Markinan bertan norbait negarrez ikustea eta zerbait gertatu dela ikustea. Iruñean ere eman nuen kontzertua ekainean, sumatu nuen malkoren bat bazegoela, eta ni ere hunkitu egin nintzen momenturen batean, zerbait gertatzen ari ote zen seinale. Hurrena, abenduaren 17an, Hernanin izango naiz.

Nire buruari esaten diot «ez kezkatu hainbeste dena ondo ote dagoen edo hain perfektua ote den». Musika zuzenean egiten duzunean, helburua bihotzera iristea da.

Harpa da zure tresna, ez da ohikoena.

Nik harpa ezagutu nuen Benitoren “Altabizkar eta Itzaltzuko bardoari” diskoan parte hartu nuenean, 15-16 urte nituela. Hor ezagutu nuen harpa zelta bat zeukan pertsona bat, eta hasi nintzen pixka bat jotzen. Benitok orduan utzi zidan Alan Stivelen disko bat eta asko gustatu zitzaidan; alde horretatik, nire idoloa izan da. Geroztik Stivelek egin zituen beste diskoak lortu nituen, eta ikusi nuen folkaren eta rockaren oinarria erabiliz nola egiten zion tokia harpari, eta horren ildotik joan



naiz ni neu ere. Instrumentua ikasteko sartu behar izan nuen kontserbatorioan, eta orduan musika klasikoaren bidea egin nuen. Baina klasikoa gehienbat akademikoki landu dut, titulazio bat izateko, argi neukan ez zela hori nire bidea. Paraleloki beti musika popularraren ildotik jarraitu dut eta euskal kantu tradizionalak ezagutzen joan naiz.

Hori da zure ukitu berezia?

Bai, folk-pop musikaren giroa hartu dut pixka bat, hori imitatuz alde batetik, eta gero nire erara ekarriz. Euskal musika tradizionala ezagutu dut, eta

«Polita izan da kontzertu batzuetan norbait negarrez ikustea eta zerbait gertatu dela ikustea. Jendearen bihotzetan zerbait ukitzea lortzen badut, asko da»

uztarketa bat egin dut, eta imaginario bat sortu.

Benito Lertxundirekin bira egiten ari zarete. Nola doa?

Bai, koroak egiten, harparekin eta teklatuarekin laguntzen dut. Bira ongi doa, indartsu. Urte batzuk izan ditugu Hegoaldean non guztia nahiko geldi egon den, krisia eta... Orduan, geroni animatu gara ekoiztera, kontzertuak sarreraren ordainarekin aurrera ateratzera. Hau da, ez da kontratazio baten bidez izan, gu ekoizten hasi gara.

Esan behar da Iparraldea ere urte askoan hilda bezala egon dela, gutxi etorri izan gara. Aur-

ten Jean-François Duprat izeneko pilotari ohi batek deitu gaitu hainbat kontzertu antolatu nahi zituela esanez; iaz, Baionan egin zuen lehen kontzertua, Benitorekin. Aurten lau kontzertu antolatzen ahal zituela esan digu. Donibane Lohitzunen daukagu azkenengoa, abenduaren 19an, Jai Alai pilotalekuan. Berak antolatu du ere nire Baionako kontzertua.

Lertxundirekin egiten ari zareten bira horretan bere kantu berri eta zaharrak entzun daitezke, baina musikariek ere toki handia duzue, kontzertuaren erdia ia esan daiteke zuen gain dagoela. Formatu hori nolatan?

Benitori beti gustatu izan zaio musikariei tokia ematea. Angel Unzu, gitarra eta perkusioa jotzen duena, askotan aritzen da eta oso kreatiboa da; bere kabuz sarri entzuten dugu gauza ezberdinak egiten. Benitori gustatu zitzaion eta tokia ematea pentsatu zuen, horrelako arnasaldi pixka bat emateko ere.

Aniztasuna da zentzu horretan. Erabiliko dut hitz polit eta magiko hori, hainbeste aipatzen duguna, baina identitate edo entitate baten barruan, hori bai.

Musikak toki handia hartzen du zure bizitzan.

Batzuetan egunerokoaren parte denean gogo handirik eduki gabe ere praktikatu egin behar duzu, nolabaiteko hoztasun batekin. Praktikatu behar dituzu zuzenean kantatzen dituzun kantuak, eta hori batzuetan era mekanikoan egiten da, gero zuzenean teknikaz ez arduratzeko. Horren atzetik lan hotz bat egon behar da, eta horrelako batean ideiatxo bat sortzen da, baina lanetik ateratzen da beti, lanean harrapatzen zaitu inspirazioak. Lan aspergarri baten ondoren ideia polita ateratzen da, horrek ilusionatzen zaitu, eta jakin nahi duzu sentiarazi duzula zerbait. Dena sorginkeria da: lortzen baldin bada komunikatzea, horrekin dena lortzen da.

Piratak altxorraren bila

**Xabier Mikel
Errekondo**

Atzo zortzi Kolonbiako presidente Santosek “San Jose” galeoiaren aurkikuntzaren berri eman du. 10.000 milioi euroko altxorra sa-belean zuela 1708an Indiatako ibilian ingeles kortsarioek hondoratu zuten galeoia. Eta, hara ze kasualitatea, espainiar Koroa-
rentzat Usurbilgo Mapil ontziolan izan zen eraikia hamar urte lehenago. Itsasoan nola ontzigintzan ere euskaldunen eskar-
mentu eta ospea munduan zehar aitortua zen adierazgarri.

Espainiar, ingeles eta frantziar inperio-
en mendeetako diru iturri nagusiak India-
ko ibilian egin arpilatzeak izan dira. Baina,
aberastasun gose aseezina zutenez, bata
besteen arteko lapurretak etengabe ema-

ten ziren. Ondorioz, ezpataz eta odolez la-
purtutako era guztietako altxorrak iristen
ziren, baita Euskal Herrira ere.

Ez dago ohorerik ordea garaiko itsason-
tzirik aitzindariena eraikitzean, inperio
bihozgabeenaren esku Amerikak egiteko
tresna ezinbesteko bilakatzen denean; are
gutxiago zure herriarekin gauza bera egin
duenarentzat denean.

Ezaguna da Usurbilgo elizaren dorre do-
torea eraikitzeke Etxebeste jaunak india-
noen odolez zipriztindutako urrez beteri-
ko kuxak bidali zituela. Antzera, nago
gure inguruetan adibideak ez direla falta-
ko... Eta ez, ez da atsegina hori onartzea,
baina hori da gure historiaren parte baten
egia.

«Espainiar hauek jota daudel!». Ez al da
negargarria Espainiako Kultura Ministe-
rioak «espainiar ondare» delakoan “San
Jose” galeoiaren altxorra erreklamatu iza-
na? XVI. mendetik aurrera ezpataz arpila-
tutakoa XXI.lean legeztatu? Espainiar Esta-
tuak bere ardura hartu izana ez al da froga
argia Hagako Auzitegiak epai dezan egin
arpilatze eta sarraskiengatik?

Nago baina, justiziarik izango bada lege
zaharrera jo beharko dugula: lapurrari la-
purtzea libre...

Bada, Usurbilgo Udalak pirata ontzi bat
bidal dezala berreskuratzen bai altxorra
indiano txiroentzat eta bai ontzia bera ere
herriarentzat, ondare kultural paregabea
baita bere horretan. •

Edertasuna oroitzea

Maidier Iantzi

Duela 85 urte jaioa, Audrey Hep-
burnek balleta dantzatu zuen
hautzaroan eta nerabezaroan eta
ezkutuan dirua biltzen ibili zen
Herbehereetako erresistentziari laguntze-
ko. Nazien aldekoa zuen aita; baroia, aito-
na bat. Aktore karreraren amaieran, Uni-
cefeko enbaxadore berezi izendatu zuten,
eta, minbiziarekin hil baino lehentxeago,
Askatasunaren Domina irabazi zuen. Bai-
na bere edertasuna da oroitzen duguna.

Belaunaldiz belaunaldi segitu ditu jen-
darteak edertasun ereduak, teoria eboluti-
boetatik hasi –bertze animaliek bezala, bi-
kotekidea umeak izan eta zaintzeko
ezaugarri fisikoen arabera hautatzen du-

gula diotenak– eta metrosexualenganai-
no. Tartean pasatu ditugu bular eta aldaka
zabaleko Venus, begi handi eta gorputz ga-
raiko Nefertiti, aberastasunaren seinale zi-
ren zurtasuna eta borobiltasuna, gero ar-
galtasuna eta azala zimurtu arte eguzkia
hartzeko moda, berriro zuria, zaintzeare-
kin lotua... Eta oraindik ez da desagertu
txikitan erabili erabiltzen genuen baina
bere itxura arraro eta ezinezkoagatik so-
bera gustuko ez genuen Barbie. Are gehia-
go, Hello Barbie jaio da, adimen artifiziale-
ko jostailurik konpletoena. Merkaturatu
ez zedin kanpaina egin arren, Mattel etxe-
ak aitzinera egin du eta dendetan dugu
Eguberri hauetan. Kritika batzuek diote

haurren gustuak ikertzea bilatzen dutela
jostailu perfektua lortzeko, “The Simp-
sons” telesaileko kapitulu batean bezala,
panpina gerri mehe honek wifi konexioa
baitu eta hurrekin solas egin eta elkarriz-
ketak grabatzen baititu. Barbie espioia da.

Alde guztietatik iristen zaigu irudi bon-
bardaketa gure gustuak bideratuz. Zutabe
osoa ez, egunkari osoa eta gehiago merezi-
ko luke publizitatea aztertzeak. Matxismo-
aren gailurrean dabil, emakumeak kirur-
gia estetikoa egitera animatuz eta kortse
itxi batean itoz. Ez naiz «edertasuna ba-
rruan dago» topikoan eroriko, baina eder-
tasun fisikoa ezin da izan oroitzen dugun
gauza nagusia. •



Nola eutsi landa eremuetako transmisioaren hariari?


Ez da ohikoa 24 eta 25 urteko gazte batzuek baserritik bizitzeko hautua hartzea. Garai modernoko Euskal Herrian, nekazaritza ogibidetzat aukatzea ortodoxiatik irteten den erabaki bihurtu da. Lotua da baserria eta, gainera, egungo eskema ekonomikoaren arabera, errentagarritasun txikiko jarduera profesionala ere bada.

Hori horrela da egun, eta horrela zen orain dela 36 urte ere, Mailu Gardoki eta Xabi Akizuk baserritartzeko erabakia hartu zutenean. “Betiko” nekazaritzaren eta nekazaritza “modernoarean” arteko trantsizioa bete-betean zegoenean egin zuten aukera. Dioten bezala, apurtu aurretik heldu zioten baserriko jakintzen hariari. Mailu eta Xabi bezalako baserritarren ekinarekin, hari hori sendotu egin da. Alde bateatik, egungo euskal nekazaritza ekologikoaren mugimenduan paper esanguratsua jokatu dutelako, ekoizpenean aitzindariak izanda eta baserritar zein kontsumitzaile ekologikoen elkarrekin lehen lerroetik sustatuz. Beste aldetik, baserri ekoizpenaren desagerpen testuinguru betean, abandonatuta zegoen baserri bat berri eta ekoizpen betean jartzea lortu zutelako, beraien lanpostuak sortuz eta, 36 urteren ondoren, errentagarria den nekazaritza enpresa txiki bat mantenduz.

Baina Mailu eta Xabiren gorputzetatik ere pasa dira 36 urte eta orain baserriaren transmisioa gauzatzeko asmoarekin dabil-tza. Euskal Herriko ehunka baserritan gertatzen ari denaren adibide dira.

GAZTETASUNAREN IDEALISMOTIK HASI

24 eta 25 urteko neska-mutilak artean, bi gazte arrasatear hauek 1979ko udaberrian sartu ziren aurrenekoz Haristizabalen. Baserriaren deia urte batzuk lehenago entzuna zuten, eta dei hori jarraituz ibili ziren, trebatzen, Ingalaterratik (Mailu), Kataluniatik (Xabi), eta, elkarrekin, Lasturren. «Guk nekazaritza ekologikoa egin nahi genuen», gogoratu dute, «duela 36 urte, inguruotan gure ekoizpen eredia ‘existitzen’ zenik ere ez zen entzuten, horregatik kanpora jo behar izan genuen, ikasteko. Hona heltzean konturatu ginen bertoko baserritarrek ere inork baino gehiago zekitela nekazaritza ekologikoaz. Auzokoekin



Mailu Gardoki eta Xabi Akizu, Ezkio-Itsasoko Haristizabal baserrian. Duela 36 urte egin zuten bestelako bizimodu baten aldeko apustua.

Haritz MAYORA

asko ikasi dugu, nekazaritzarekin lotutako kultura barne-barnean daramate».

Jakintzak jakintza, 70eko hamarkada hartan baserritarrek eta beraien mendeetako ezagutzek bi aukera besterik ez zeuzkaten: intentsifikazioa ala jarduera abandonatzea. Xabi eta Mailu Europa osoan zehar erretzen zegoen hirugarren aukera hartu zuten: ekoizpen biologikoa eta kontsumitzailearekin harremana. Leku askotan bila ibili eta gero, Ezkio-Itsason baserri eder batekin eta horren 11 hektareekin –erdiak harizti– topo egin zuten. «Orduan ere ez zen erraza gazteentzat baserri bat eskuratzea», nabarmendu dute. «Herrian oso harrera ona egin ziguten auzokideek, segituan gonbidatu gintuzten bazkaltzera bizilagunek, eta baserria konpontzen hasi eta berehala alkatea eta bi zinegotzi etorri

ziren gure asmoak ezagutzera. Ondoren alkateak berak udal plenoan gure buruak aurkeztu eta gure proiektua zein zen azaltzera gonbidatu gintuen. Baliabideak ere eskura jarri zizkiguten: goiko baserrikoek mandoa utzi ziguten, behekoek traktorea... Eta jakintzak! Ezin esan zenbat ikasi dugun gure amekin lehenengo (Xabiren amarekin ortuaren gakoak ikasi bazituzten, Mailurenarekin okintzaren munduan murgildu ziren), eta auzokoekin gero beste hainbat lanetan».

1979an, XVI. mendeko Haristizabal baserri ederretik zutik gelditzen zen ia gauza bakarra bere hiru arkudun atari paregabea zen. Goitik behera berriztatu behar izan zuten; «eskerrak lagunei! Asteburutan kuadrilla bikainak elkartzen ziren hemen lagun eta senitartekoaren artean –Xabiren

aita arotza zen–. Beraien laguntzarik gabe ezingo genuen etxea altxatu». Lehenengo urte haietan, baserri ekoizpen «klasikoa» egiten hasi ziren, denetik zeukaten: ortua, fruta arbolak, antzarak, oiloak, untxiak, ahuntzak, behia, ogia... Baserri ekoizpen dibertsifikatu baten maneiua ikasi zuten, hizki guztiekin. Etxekoan kopurua ere ugaritua zen Ortzi eta Zuhaitz semeen etorrerarekin, eta, hamar urteren ondoren, «oinarrizko baserritar titulua» lortuta, erabaki zuten indarrak bildu beharrean zeudela. «Baserrian lortutakoa Zumarragan saltzen genuen. Xabik euskara eskolak ere eman zituen lehen bizpahiru urteetan. Baina buruan geneuzkan inbertsioak egin ahal izateko (errota, furgoneta...) ez zigun ematen. Orduan erabaki genuen okintzan eta frutagintzan zentratzea».

NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA


Urte asko «ia baserritik irten gabe» eman eta gero, fase soziala iritsi zen Haristizabalera. Pasa den mendeko 90eko hamarkadaren hastapenetan sortu ziren hainbat gizarte mugimenduren sorreran parte hartu zuten: Biolur Gipuzkoako Nekazaritza Ekologikorako Elkartea; Otarra kontsumo ekologikorako elkartea; Goimen Goierriko Landa Garapen Elkartea (bertan teknikari bezala lan eginez); «Baserria Natura Eskola Bizia» ikastetxeei zuzendutako programa, Gipuzkoako Okin ekologikoen taldea, AHTren kontrako mugimendua...

Sarritan, baserriko lanak eta ordu txikietan egindako batzarrak uztartu beharrean izaten ziren. Indarra eta grina bazituzten, eta orain, emaitzei erreparatuta, pozik agertzen dira bilakaera horretan beraien alea jarri izanagatik, «gaur egun nekazaritza ekologikoak badu izena eta izana, eta herritarrek bertoko elikagai ekologikoak eskatzen dituzte». «Baserria Natura Eskola Bizia» bezalako ekimen batek duen eragin biderkatzailea ere nabarmendu dute; «milaka ikasle eta heldu pasa dira proiektuko zortzi baserrietatik, eta ikusi dute baserria bizirik dagoela eta bere funtzio anitza garrantzitsua dela Euskal Herriko etorkizunerako. Ereindako haziak bere fruituak ematen ari dira».

TRANSMISIOAREN KORAPILOA

Baina denbora ez da alferrik pasatzen, eta baserriko lanaren nekeak nabariagoak dira behin edade bat hartuta. Erretirorako garaia gertu dute, bai Xabik eta baita Mailuk ere, baina ez dute erretiroa hartu nahi Haristizabaleko ekoizpenak eta bertan sortzen diren lanpostuek jarraipena izango dutela bermatu arte. Izan ere, jarduera profesional betean aritzeko baliabideak dauzka Haristizabalek: 2 hektareako fruta saila, fruta gordetzeko kamara, irina eta ogi ekologikoa egiteko okindegia, ikastetxeen bisitak jasotzeko azpiegitura. Baserriko ekoizpenaren transmisioa gauzatu ahal izateko formulen bila dabilta. «Prest gaude dakigun guztia transmititzeko, hori behar-beharrezkoa da. Baina erreleboa gauzatuko bada, guk beste etxe batera joan beharko dugula argi dugu, berriek ere askatasun osoa beharko dute-eta».

Egoera horren aurrean ere, bide berriak irekitzen saiatu dira azken hiru urteetan zehar. Irtenbide desberdinak lantzen ari dira: errentan ematearena, elkarte bat sortu baserriaren jabegoa partekatuko duena, salmenta babestu bat (gaur egun kaleko etxebizitza babestuak dauden antzera) bertatik bizitzeko baldintzarekin... Lan-bizitza osoan zehar baserria jasotzen eta be-



«Baserria Natura Eskola Bizia» ekimenaren baitan, hainbat eskoletako ikasleek bertatik bertara ezagutzen dute baserriko bizimodua.

Haritz MAYORA




re etorkizuna bermatzen ahalegindu ondoren, ez dute Haristizabal itxita ikusi nahi indarrak jaitsi zaizkielako. «Ez dugu erretiratzeko asmorik. Badugu baserriaren alde lanean jarraitzeko gogo eta beharra, baina modu lasaigoan, osasuna ere zainduz. Oso garrantzitsua da guretzat, ordea, Haristizabal baserriko ekoizpenak jarraipena izango duela bermatzea».

Ez gara kasu isolatu batez ari: Euskal Herriko baserri asko –ekoizpen ekologikoaren aitzindari izan zirenak barne– egoera bertsuan daude. Aldi berean, pertsona gazteak daude lanean hasiko lirakeenak, baina inbertsio gogorrek egiteko gaitasunik ez dutenak. Alde biak elkartzeko oso interesgarria litzateke Iparraldean dagoen Lurzaindia bezalako erakunde bat, erretiratzear diren baserritarrak eta hasi nahi dutenak kontaktuan jarriko dituen, aurrez baserritarrak formatuko dituen urrats hori prestatzen joateko, erreleboa eroso eta era justuan egin dadin.

Zergatik ez amestu baserri ekoizpenen eta kulturaren jarraipena ziurtatzeko, errelebo hori posible egiteko, baserria bizirik eusteko: herri ekimenak, formula kolektiboak edota politika publikoak? Transmisioa bermatu beharrean gaude, haria betiko eten ez dadin, zer litzake bestela baserri gabeko Euskal Herria?

ENEEK
Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura
Ekologikoen Kontseilua



Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

infraganti IKER MAIDAGAN

AEBetako zinema konpainia erraldoiekin lan egin ondoren Euskal Herrira itzuli da berriro Iker Maidagan, sormenerako duen toki kutunera. «Mirage» film laburraren egilea istorio berriak idazten ari da uneotan eta tarte bat hartu du GAUR8ri bere ibilbidearen berri emateko. Hollywoodeko xarma eta ahalmen izugarritik urrun, marrazkien bidezko narrazioarekiko pasioa da berea.

Eguberri egunean bertan Snoopy eta Carlitos protagonista nagusi dituen “The Peanuts Movie” estreinatu-ko da Euskal Herriko zinema aretoetan. Adi beraz, film hori *made in Euskal Herria* baita neurri handi batean. Izan ere, Iker Maidagan pantaila handian ikusiko dugun lanaren *story artist*-a da, hau da, berak egin du filmeko *storyboard* edo irudi bidezko gidoia. Euskal Herrian dago orain Maidagan, etxean, sormen prozesu bete-betean sartuta. Hori bai, bere ibilbidearen istoriotik hasita beste mila kontatzeko prest aurkitu dugu.

Maidaganen istorio pertsonala Gueñesen hasi zen, azkeneko zazpi urteotan AEBetan idatzi baditu ere kapitulu berrienak. Bertan zinemagintzan eta telebistan egin du lan. Azken boladan *story artist* gisa aritu da, eta ez edonon: 20th Century Fox konpainian. Esan bezala, *storyboard* edo irudi gidoiak egiten aritu da, hau da, Maidaganen hitzetan, filmen «bertsio primigenioak» egiten. «Eszena guztiak zehazten dituzten mugimenduzko komiki modukoak dira eta behin-behineko soinu bاندarekin muntatzen dira». Hasierako lan horren bidez, filmaketa lanetan edo animazioan sartu aurretik istorio batek zelan funtzionatzen duen ikusten da, eta produkzio erdian ager daitezkeen arazoei irtenbidea emateko aukera ere izaten da. «Zerotik filma imajinatu eta ondoren datozen ehunka pertsonentzako gida bisuala sortzen duen zuzendari txiki baten modukoa zara. Horregatik, animazioan, zinema zuzendariak *storyboard artist* gisa hasi ohi dira», argitu du Maidaganek.

Barrura begira, lan hori «jatorrietara itzultzea» bezalakoa dela dio gueñestarrak: «Txikitan egiten nuenak izen tekniko bat daukala deskubritzearen parekoa izan da, zinemagintzan guztiz funtsezkoa den lan bat dela. Gainera, hori egiteagatik ordaindu ere egiten dizute!». Eta jatorri horietara salto eginez, kontatu du Maidaganek Zarami-

llo Gueñesko auzoaren eta Bilboren artean hazi zela. Bilbon zuen eskola, baina herrian bizi zen; «nire lagun gehienak Bilbo-koak ziren eta ni tren bidaiari menpe izaten nintzen beti lagunekin elkartu ahal izateko», gogoratu du. Dioenez, ondorioz, ez zuen afaldu aurreko futbol partidarik izaten, eta orain, atzera begiratuta, konturatu da agian arrazoi horregatik jaio zela barerengan marrazteko zaletasuna.

Eskola eta institutu garaiez oroitzapen bereziak ditu. Goizeko lehen orduko klaseetara berandu heltzen zen beti, matematikak gorrotatzen zituela ez du ezkututzen, ezta historia eskolak maite zituela ere. «Herrian nengoenean etxean egotekoa nintzen, eta, irteten nintzenean, mendira joateko izaten zen gehienetan», segitu du. «Oso gustuko dut mendira joatea eta jarraitzen dut joaten». Zaletasuna horren atzean irudimen ariketa garrantzitsu bat ere badago. «Euskal Herriak paisaia izugarriak dauzka, begiratzearekin bakarrik inspiratzen zaituzte», azaldu du.

IKASMAHAIA, EUSKARRI MAITEENA

Imajinatzeko da Maidagan, begiak itxita, garai hartako oroitzapenak burura ekarriz. «Txikitan, artzaina zen nire osaba bati gailur bakoitzaren historia kontatzeko esaten nion. Horrek guztiak liluratzen ninduen; egun parez pare ditugun mendi horiek berak tropa erromatarrek zeharkatu zituztela edota gerlari bikingoek ikusi zituztela pentsatzeak liluratzen ninduen», azaldu du ume baten begiekin begiratutako mundua gogoan.

Irudimen hori ez zen urteekin joan, beste forma, ideia eta eszena batzuk hartzen joan zen. Iker Maidagan umeak, izan ere, oso gustuko zituen zinema eta marraztea. «Komikiak pobreen zinema direla diote, eta nik ez nuenez ez kamerarik ezta film labur bat egiteko laguntzeko prest zegoenik ere, komikiak egiten nituen. Hogeia komiki inguruko bilduma izatera ere heldu nintzen, bakoitza berrogei orrialdekoa», gogoratu du. Komikiak egiteko «beharraren»

atzean zer zegoen aitortu du: «Dibertitzen ninduen ez zen marraztea, marrazkiekin istorio bat kontatzea baino».


Irudimenaren mundu horretan ikasgeletan aurkitu zuen euskarri gustukoena Maidaganek: geletako ikasmahaiek xarma berezia zuten marrazteko. «Ikastetxeetako mahaiaik arbela bikainak dira arkatzendako; papera baino askoz gustukoagoak ditut marrazteko eta faltan botatzen ditut», aitortu du.

«JURASSIC PARK» FILMA

Muralak, mota guztietako eszenak, itsasontzien batailak, paisaiak, edozerk har zezaken marrazki itxura. «Azkenerako nire ikasmahaia espektakulu bilakatu zen eta garbitzaileek garbitzeari ere utzi zioten. Hurrengo goizean itzuli eta han zeuden nire marrazkiak, gainontzeko mahaietakoak ezabatzen zituzten bitartean», gogoratu du irribarrez. Institutuko azken egunean, hutsik zegoen ikasgela batean sartu zen azken orduan: mahai guztiak batu eta marrazki erraldoi bat egin zuen. «Inork hau ikusten badu orain, ba bai, ni izan nintzen, baina pentsatzen dut orduan ere imajinatuko zutela...», kontatu du.

Irudimenez betetako motxilarekin, gazte-gaztea zela erabaki zuen zinemagintzan lan egin behar zuela. Zehazten duenez, «Jurassic Park» filma ikusten hartu zuen erabakia. Pelikula hori «bere belaunaldiaren 'Star Wars'» izan dela dio. Dinosaurioekin «flipatzen» zuen ume bantentzako, «magia hutsa».

Gogorragoa izan zen AEBetara salto egitearen erabakia. Jauzia egindakoa, hori bai, «inoiz ino-



Iker Maidagan animazio zinegilea da AEBetan. Egunotan, Gueñes jaioterrian dago.

Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

ra» ez zela helduko pentsatu zuen. Aurretik, Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasteko nota nahikorik ez zuela-eta EHUk kazetaritzan matrikulatu zen, baina bi urteren ondoren ikusi zuen hura ez zela bere bidea. Gauzak horrela, zerotik berriro hasi behar izatekotan, pentsatu zuen Bartzelonan edo Madrilan egin beharrean hobe zela helmugatik hurbilago egitea, eta New Yorkera joateko aukera aztertzen hasi zen. «Urte bi eman nituen ingelesa ikasten, eta, tartean, kazetaritza bukatu nuen. Azken azterketa bukatu bezain

pronto, notaren zain egon gabe, AEBetara bidean nengoan».

Behin New Yorken, film laburrrak, lan amateur andana eta Brooklyneko animazio estudio batean egindako praktikak heldu ziren, AEBetan oso ezaguna zen «Ugly Americans» telebistako sailean. Hangoak ere bere istorioa badu. Gogoratu duenez, produkzio batean lanean ari ziren, baina sekretismo izugarritz jokatzeko zuten arduradunek; langileei ere ez zieten ezer esaten. Egun batean, Owen Wilson aktore ezagunaren antz handia zuen pertsonaia baten eszena bat enkargatu zioten. Hain zuzen, «Zoolander» filmean oinarritutako telebistarako sail labur bat prestatzen ari ziren.

Ostean, «Mirage» film laburra zuzendu zuen Maidaganek Dana Terracekin. Maidaganen gidoia duen lanak nazioarteko jaialdi ugartan parte hartu zuen, eta, izandako harrera onari esker, 20th Century Fox etxeko Blue Sky Studios animazio estudioetan *story artist* gisa lan egiteko aukera sortu zitzaion.

Kontuak kontu, baina, publiko handiaren begietara saltzen diren galek, sariak, *glamour*-ak... zerikusi gutxi dute Maidaganen hitzetan zinemagintzaren egunerokoarekin. Dirua irabaztea helburu duten konpainia erraldoietan, «kezka handiak dituzten sormen handiko lagunak daude, baina baita sistemaren parte diren pertsonak ere», esan du, eta, estudioaren arabera, batzuek besteek baino pisu handiagoa dutela gaineratu du.

Maidaganek parte hartu duen hiru film labur daude orain zinemetara bidean; lehena aurki estreinatuko da, eta, beste biak, berriz, batek daki. Azaltzen duenez, animazioko film batek hiru urte behar ditu hasi eta bukatzeko, atzerapenik ez bada, «eta niri katearen hasierako lana tokatzen zait». Besteen lanetan aritu ostean, hori bai, bere proiektuetan dago orain murgilduta. Aurreratu dezakeen bakarra bi film labur eta luze batean ari dela, hortik aurrerakoa...•

«Azkenerako nire ikasmahaia espektakulu bilakatu zen eta institutuko garbitzaileek garbitzeari ere utzi zioten. Hurrengo goizean itzuli eta han zeuden nire marrazkiak»

«Mirage» animaziozko film laburrarekin nazioarteko hainbat jaialditan izan zen Maidagan. Izandako harrera onak 20th Century Fox konpainiako ateak ireki zizkion

Nerea GOTI



Iratxe Esnaola - @puntues
Informatika ingeniaria

Youtuberrak

Urte bukaeran, ohikoa izan ohi da urtearen errepasoa egitea. Twitter sare sozialak egin du berea eta identifikatu ditu eragin handiena izan duten txioak, gehien bertxiotu direnak, kontu bat ireki duten pertsona ezagunak eta egin du 2015eko tendentzien ranking bat ere. Youtube atariak ere egin du. Tira, Google etxeak, berea baita Youtube: munduko hirugarren webgune bisitatuena. Kuriosoa da emaitza. 2015ean ikusiena izan den bideoaren protagonista 5 urteko haur bat da, Heaven King. Bere ama da bideoak igotzen dituen, alaba koreografiak dantzatzen dagoen bitartean. Youtube atarian bere alabaren dantzari ibilbidea proiektatzen du. Eta bide batez, sustatzen saiatu (berak dioenez). Estiloak eta estiloak daude. Bigarrena iragarri bat da, Clash of Clans jokoa, Liam Neeson aktorea protagonista duena. Eta bada hirugarren bat. Eta arlo musikalean ere beste ranking bat egin dute. Eta baita estatuka banatu ere. Sarean dago, erraz aurkitzeko moduan: #YoutubeRewind2105 deitu diote.

Baina zentra gaitezen lehenengoan. Gisa horretako bideoak igotzen dituztenei *youtuber* deitzen zaie: Youtube atarian kanal propioa duten erabiltzaileak dira. Dio, Youtube berak, lehen hiru youtuberren urteko diru-sarrerak milioi bat euro baino gehiagoko batura ematen dutela. Eta uneko musikari famatuena baino ezagunagoak direla. Batzuk lanbide gisa ulertzera iritsi dira. Eta ez da gutxiagorako.

Minutu bakoitzeko, 300 bideo ordu baino gehiago igotzen dira Youtubera. Bigarren bilatzaile nagusia da, Google beraren atzetik. Zalantzarik gabe, multimedia edukiak partekatu eta kontsumitzeko modua aldatu du. Eta horregatik, batzuek, lanbide gisa ulertzen dute. Eta horretatik bizi dira: bideoak ekoitzi eta partekatzetik.

Hori da Melo Moreno bideoblogariaren kasua. 26 ur-

te ditu eta bost urteko epean milioi erdi jarraitzaile lortu ditu. Eta berak baieztatzen du, bere kanalak ematen diola jaten. Bere kanala gai arrunten gaineko umorean oinarritzen da. Eta zenbaki arruntak dira hauek. Badira bi ordutan bi milioi aldiz ikustera iristen diren bideoak, youtuber batek partekatutak. Bi eta bederatzi dolar artean ordaintzen omen ditu Youtubek mila aldiz ikusten den bideoak. Eta, hortaz, kanal horretatik bizitzeko, bisita asko behar dira. Hala dio Dani Feixas kataluniarrak, "Cómo triunfar en Youtube" liburuaren egilekideak. Youtuberren bideoak, normalean, gaztetxoei zuzendutakoak izaten dira, 13 eta 24 urte bitarteko gazteei. Bideo horien arrakastaren giltza, Feixasen ustetan, lau hitzetan defini daiteke: talentua, sormena, gozamina eta ahalegina.

Munduko youtuberren rankingean, lehendabizikoak 25 urte ditu eta suitzarra da (Pewdiepie, 34 milioi jarraitzaileekin). Hilean 400 milioi aldiz baino gehiagotan ikusten dira bere bideoak eta 77.000 euro irabazten ditu. Bigarrenak, 24 urte ditu eta txiletarra da (Holasoygerman, 21 milioi jarraitzaileekin). Hilean ia 64 milioi ikustaldi lortu eta 10.400 euro irabazten ditu gutxienez. Hirugarrenak 27 urte ditu eta estatubatuarra da (Smosh, 20 milioi jarraitzaileekin). Hilean 88 milioi ikustaldi eta 16.700 euro. Lehen bostetan zaharrenak 28 urte ditu. Gazteak dira eta gazteei zuzentzen zaizkie. Eta dituzten diru-sarrerak asaldatzekoak dira.

Baina sortzaileak izan dira, eta ekintzaileak. Ideia bat garatu dute, berria. Eta bidea egin ahala, eurekiko espektatibak eta itxaropenak ere sortu dituzte eta erantzun egin behar dute. Sormen lan handia dago atzean, eta konstantea izatea bideoak partekatzerakoan. Horrela lortu dute milioiak eta milioiak sortzen dituen webgune baten filial txiki izatea. Mini-youtube bat. Bakoitzaren estilo eta neurrikoa. Duela urte gutxi arte nekez irudika zitekeen hau. •



Munduko youtuberretan lehena Pewdiepie da. GAUR8

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



KUTXATEKA. ALDAY FUNTSA. JUAN RAFAEL ALDAY

ARTZAIN ONAREN KATEDRALA ERAKITZEKO LANAK

Donostiako Artzain Onaren katedrala 1897an inauguratu zuten, bederatzi urteko lanen ondoren. Manuel Etxabe arkitekto donostiarrak zuzendu zituen lanok, aurretik katedrala eraikitzeako deitutako lehiaketa irabazi ondoren. Lau proposamenen artean izan zen aukeratua Etxaberena. Lurrak -hondarra eta padura- Donostiako Udalarenak ziren eta hark utzi zituen katedrala eraikitzeako. Estilo neogotikoa dauka eta Igeldoko hareharria erabili zen eraikuntza lanetan. Katedralaren dorreak 75 metroko altuera dauka eta ez zuten amaitu 1899ra arte. Ramon Cortazar arkitekto donostiarra arduratu zen dorrea amaitzeaz. Goiko argazkiak katedrala eraikitzeako lanak jasotzen ditu eta Juan Rafael Alday atera zuen, Donostiako udal arkitektoa eta argazkilaritza zalea.

AURTEN ALTXOR BAT OPARITU

Ehunka preso eta
erbestaturen testigantzak eta
dozenaka artisten lanak

**Gure aroko
memoria bizia**

**Belaunaldi berriekin
partekatzeko kutxa
hunkigarria**


NOLA ESKURATU?

www.ametsenliburua.info-n
edo **944 237 273** telefonoan
eta etxera bidaliko dizugu

55€
kutxarekin

75€ Liburudendetan

50€
kutxa gabe



Olentzerotako opari bikaina

